

TOKIKOM

2019ko azaroa | 197. zenbakia

aike! txorierri

Juan Miguel Atxutegi

Politikari
maisua



IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEA

Taileri kalea 6 DERIO 94 406 36 02

ban
BASERRIANTZOKIA

Txorierriko

ABESLARI, MUSIKARI eta DANTZARIAK

Baserri Antzokiko eszenara

Urtarrilak 31


Otsailak 28

Martxoak 27

Larrabetzuko Musika Eskola • Derioko Iparralde Abesbatza • Lezamako Kurtze dantza taldea • Larrabetzuko Gaztelumendi Abesbatza • Derioko Lainomendi dantza taldea • Zamudioko Bertoko Soinu Tresnen taldea • Zamudioko Hiru Bat dantza taldea • Lezamako Ekidazu abesbatza • Sondikako Pentagrama • Zamudioko Kamara Korala

Auzolan polita pitika-pitika



-  **4 Eretxiak**
-  **5 Gutuna**
-  **6 Laburrak eta albisteak**
-  **11 Irudietan... Rafael Gonzalez, arriskuak zatitzen**
-  **12 Gurean izan da... Tio Teronen Semeak taldea**
-  **14 Gaztea eta... Leia Zarate, Athleticen jokalaria**
-  **16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
-  **18 Toti Martinez de Lezearen *Sorgin belarra***
-  **20 Juan Miguel Atxutegi, irakasle erretiratua**
-  **24 Euskararen Eguna**
-  **28 Ezkabako ihesa oroitzuz**
-  **30 Itsasne Zubiriren margolanak**
-  **32 Arimen Gaua, Txorierrin**
-  **34 Teknologia... Adimen artifiziala**
-  **35 Aikorrizketa... A, E, I, O, U**
-  **36 Sukaldaritza**
-  **37 Denborapasa**
-  **38 Agenda**



14 Leia Zarate, Athleticen jokalaria



24 Euskararen Eguna



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**



**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Erika Bilbao, Izarne Agirre, Xabier Diaz, Jose Angel Mentxaka, Jon Goikouria Larrabeiti, Josu Uribe, Juanjo Ortiz, Idoia Andres eta Itallen bertso eskola

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritzien erantzukizunik.



ERIKA BILBAO
LAB sindikatua

Udaberria urtarrilean etorriko da aurten

tea, bizi guztian behartutako jardun partzialak eta doako zaintza-lanak egin ondoren. Ez dut erosketak azken orduan egiten ibili nahi, lanetik presaka ateratzean, merkataritza gune bateko supermerkatuan. Ez dut arropa Internetez erosi nahi, denda batera joateko denborarik ez dudalako. Ez diot nire lagunari entzun nahi, latsatuta aitortuz, bere alaba lokartzea irrikan dagoela, berarekin pazientziak jolasteko nekatuegi dagoelako. Ez dut era naturalean onartu nahi langileok lanean astero hiltzea. Ez dut sentitu nahi bihotzekoak emango didala mugikorra etxean ahazten dudana bakoitzean.

Baina iruditzen zait, beldurren eta etsipenen gainetik, herri hau bizirik dagoela. Izan ere, Martxoaren 8an, Euskal Herriko emakumeok mundua gelditu genuen; metaleko langileek, kiroldegietakoek, etxez etxeko laguntzaileek, bulegoetakoek... hilabeteak daramatzate beren lan-

baldintzen alde borrokan; pentsionistek bi urte luze daramatzate guztion eskubideak aldarrikatzen, astelehenero-astelehenero, eguzki zein euri... Borroken euskal loraldia bizitzen ari gara.

Eta jauzi berri bat emateko unea iritsi da: tranpolina prest daukagu. Elkar ditzagun mugimendu guztien aldarrikapenak. Egin dezagun bidea elkarrekin, elkarri oratuta, herri gisa. Oihuka dezagun ahots bakarrez, ozenago entzun dadin. Ekar dezagun gure bizitza erdigunera: **guztiontzat bizigarria den bizitza**.

Negua bero dator aurten. Urtarrileko giro hotzean, udaberria loratzen ikusiko dugu. Bestelako Euskal Herri bat eraikitzea posible delako: **lan-baldintza, pentsio eta bizitza duinak bermatuko dituen Euskal Herria**. Martxan gaude eta geldiezinak gara. **Badator greba orokorra**. Elkarrekin plantatuz gero, elkarrekin bidea eginez gero, dena da posible.

Bestela bizi gaitezkeela sinetsita nago. Beste bizitza-eredu bat posible dela jakin badakit, baina orain arte ez naiz erabat jabetu horretarako genuen premiaz.

Nik ez dut zortzi orduz (gutxienez) lan egin nahi. Ez dut normaltzat hartu nahi multinazional batentzako lan egiten duen autonomo faltsu batek janaria etxera ekar diezadala. Ez dut estu bizi nahi hil erdira iritsita dirua apenas gelditzen zaidalako. Ez dut onartu nahi gure amak, erretiroa hartutakoan, miseriara kondenatua ego-

Koloretako paisaia eta herriak amestu ditut, umeez kolore eta lerro bakunekin irudikatzen dituztenak bezalakoak: eukalipto bako basoa, errearen alde biak lotzen dituen zubi sendo ederra, izaki koloretsuak, bihotz moreak eta herritarren ahotik hizkuntza zolia nola darien erakusten duten paisaiak. Eta hara non etorri den azaroaren 10a. Hauteskunde osteak koloretako paleta ekarri du pantailetara. Orain arteko kolore bakarrak aspergarriegiak eta pisutsuegiak ziren gure begi eta bihotzetan, horregatik herritarrok

Paisaia koloretsuak



IZARNE AGIRRE
Irakaslea

koloreak atera ditugu poltsikoetatik. Herri eta pertsona txiki asko toki askotan aritu da margotzen eta horra emaitza: ortzadarraren horma-irudi erraldoia. Espainiar erresuma monokromoa, entzun: aro berria erditzeaz da, nazioen txanda da. Elkarren eskutik, paisaia idilikorik egon ez arren, nazio txikiek euren paisaia margotzen ari direla erakutsi dute, ametsa ziruditen paisaia horiek egun usaindu, ikusi eta sentitu ditzakegu.



Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Autodefentsa feminista, inoiz baino beharrezkoagoa

Beste emakume bat, bikotekideak eraila. Ikasle batek bere neska-lagunaren argazkia zabaldu du institutuan. Emakume bat drogratu dute diskoteka batean. Labankadaz josi dute trans-emakume bat bere etxeko atarian. Gizon batek alden-tze-agindua urratu du eta bere bikotekide ohiari eraso dio. Emakume bat larriki zauritu da bere erasotzailearengandik ihesi leihotik erori denean...

Egunero entzun eta irakurtzen ditugu komunikabideetan eraso matxisten inguruko berriak; emakume izateagatik eraso-tu dieten emakumeen inguruko berriak. Urrun geratzen zaizkigu, gelditu eta kon-taketarekin hasten garen arte.

Urtebeteen zortzi emakumeri eraso diete Derion. Gure kaleetan bizi diren, lan egin edo bizitza soziala egiten duten emakumeak dira. Basakeria bat da Derio moduko herri batean urte bakarrean zortzi eraso egon izana! Eta, gainera, jakin badakigu gehiago izan direla, gure belarrietara iritsi direnak zortzi direla, baina beste hainbeste ezkutuan geratu direla argitara irten gabe.

Erasotzaileak ez dira bikotekideak eta bikotekide ohiak soilik. Derioko erasoetan, bikotekideez eta bikotekide ohiez aparte, herriko gizon ezagunak eta ezezagunak izan dira erasoak egin dituztenak. Mehatxu, indarkeria, eraso fisiko eta hitzezko erasoen bidez era askotako espazioetan gertatu dira erasoak: leku publiko zein pribatuetan, kalean, lanean, etxean... Zortzi erasoetatik zazpi herrian bertan gertatu dira, eta bakar bat baino ez da jai giroan izan. Erasotzaileen adina 17 urtetik 60 urtera artekoa da; gehienak adin ertaineko gizon zuriak izan dira.

Horrekin adierazi nahi dugu erasoak oso gertu pairatzen ditugula, edozein espaziotan eta edozein modutan: kaleko jazarpenak, sexu askatasunaren kontra-koak, mehatxuak, eraso fisikoak... eta erasotzaileek inolako zigorrik jaso gabe, ez eremu judizialean, ezta gizartearen aldetik ere. Haien bizitzarekin ezer gertatu ez balitz bezala jarraitzen dute, gure sal-tokietan erosten dute, gure espazio berberak erabiltzen dituzte... Emakumeok, aldiz, erasoak jasateaz gain gizartearen



a: Emma Gasco, *Pikara Magazinerako*

gaitzespena, zurrumurruak, begiradak... jasan behar ditugu; inorekin ez topatzeko ogi bila zein bide hartu pentsatu behar dugu, oraindik ere emakumea baita bizi-modua aldatu behar duena. Nazkatu-rik gaude kontuz ibili eta gure burua babestu behar izateaz!

Argi dugu erakundeek ez gaituztela babesten. Geratzen zaigun aukera bakarra elkar babestea eta zaintzea da.

Eta zuk? Nola jokatu duzu?

Nor babestuko duzu, erasotzailea ala erasoak jasan duena?

GORA AUTODEFENTSA FEMINISTA
GORA BORROKA FEMINISTA

Koxak Derioko talde feminista



Zapata Gorriak, Zamudioko elkarte feministak, jaietan eraso matxisten kontra antolatutako ekimenetan parte hartu duten emakume eta elkarte guztiei eskerrak eman nahi dizkie eta, era berean, zoriondu nahi ditu.

Ahizta!, eskerrak erasoen kontrako protokoloa sortzen lagundu duzulako; haren aldeko apustua egin duzulako; brigada feministan parte hartu duzulako, brigadaren zapia txiste matxistetatik defenditu duzulako; jaietan, zapatuan gertatu zen indarkeria-erasoa konpontzen ahalgindu zinelako; herriko puntu beltzak zehaztu eta seinalatu dituzulako; beste emakumeei laguntzeko prest egon zare-lako, hiru egunean, egunez eta gauez era arretatsuan... Gure "ahiztatzea" hasi, hazi egin da, eta Zamudioko emakumeen ahal-duntzeak jada ez dauka atzera bueltarik!

Eskerrik asko *ahizta!*

Eskerrak jai batzordeari ere bai, hasie-ratik gure proiektuan sinesteagatik; txos-netan gure ahots-iragarkiak jartzeagatik eta interesagatik; udaleko berdintasun batzordeari, puntu morea diruz lagun-tzeagatik; herriari, kartelak eta laguntza eskatzeko telefonoa zabaltzeagatik; Ema-gin elkarteari, profesionaltasunagatik... Jaietan, Zamudio seguruagoa, kontzien-tziatuagoa eta solidarioagoa lortu dugu-lako harro sentitu zaitez *Ahizta!*

Mila, mila esker more!

Zapata Gorriak



Milaka lagun batu ziren Zamudioko Azokan

Udalak jakinarazi zuenez, azaroaren lehen asteburuan milaka lagun hurbildu ziren Zamudioko Azokara. Alde bate-tik, jendetza handia batu zen Txokolate, Gozoki eta Artisautza Azokan zapatuan; bestetik, betiko moduan, Nekazaritza eta Abeltzaintza Azokak lagun asko erakarri zuen domekan. Halaber, Euskadiko Limusin arrazako Abeltgorri Txapelketa egin zen Kotxozulo parkean, eta, besteak beste, artisau-garagardoa, gazta eta txakolina dastatzeko aukera egon zen. Sariak ere banatu ziren.

Txokolate, Gozoki eta Artisautza Azoka zortzigarren aldiz egin zen. Udalak azaldutakoaren arabera, hartan gero eta jende gehiago biltzen da urterik urte, eta ezinbesteko hitzordu bihurtu da Euskadiko produkturik onenak dastatu ahal izateko. Gainera, herri-bazkaria egon zen, eta Eusko Labeldun indabak eta txerriak eta Zamudioko artisau-garagardoa eskaini ziren.

Zamudioko Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka ere antolatu zen, 34. aldiz. "Bizkaiko azokarik garrantzitsuenetako bat da, lehen sektoreari ematen dion laguntzagatik eta urtero jende ugari erakartzen duelako". Zamudioraino hurbildu zirenek baserriko kalitate handiko produktuak erosi ahal izan zituzten, hala nola ortu-ariak, fruta, ezti, ogia eta pastelak.

Domekan, azokako sariak banatu ziren eta irabazleak hauek izan ziren: Be-



goña Lumbreras (Berango), barazki-saltokirik onena; Itziar Etxebarria (Gatika), fruta-saltokirik onena; Igor Txurruka (Markina), gaztarik onena; Erdikoetxe (Lezama), txakolin zuri eta beltz onenak; Sasine (Larrabetzu) txakolin gorri onena; eta Magalarte, tokiko txakolinik onena. Horrez gain, hauek izan ziren Limusin arrazako Abeltgorri Txapelketako garaileak: Alfonso Fernandez (Muskiz), zezen nagusi onena; Asier Etxeberria (Oiartzun), behi nagusi onena eta ganadutegirik onena; Fidel Abans (Orozko), intseminazio artifizial bidezko produkturik onena eta ar gazte onena; eta Iñaki Zunzunegi (Zumarraga), eme gazte onena.

Lorra kooperatibak 27. aldiz antolatu zuen Limusin arrazako Abeltgorri Txapelketa. Horretarako, hauen laguntza eduki zuen: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Al-
dundia, Zamudioko Udalak eta BBK. Lehiaketak arraza eta bere hobekuntza genetikoak ezagutzera ematea du helburu. Era berean, topalekua da abeltzaintzat eta enkantean 10 buru saldu ziren.

Lezamako HAPOa baliogabetu du G

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Lezamako Hiri-antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) atzera bota zuen 2018ko otsailean, eta udalak kasazio-errekurtsoa ipini zuen. Auzitegi Gorenak ez du errekurtsioa onartu eta behin betiko baliogabetu du Lezamako HAPOa.

Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako alkateak adierazi duenez, epaia onartzen dute, harekin ados ez badaude ere. Era berean, esan du 2020an hasiko direla "Lezamak behar duen hirigintza-planeamendu berria lantzen". Bestetik, Aurrekoetxeak justiziari eskatu dio auzi antzekoetan irizpide berberak erabiltzeko. Udalak ohar batean azaldutakoaren arabera, Auzitegi Nagusiak Larrabetzuko HAPOa onartu zuen 2019ko otsailean, nahiz eta Lezamakoak zituen lau forma-akatsetatik hiru zituen. "Nolanahi ere, Larrabetzuko izandako aldeko epaiaz pozten gara. HAPOa egitea oso luzea da, 4-5 urte, eta, gainera, kostu handia du udalerriri txiki batentzat".

Auzitegi Nagusiak ez zuen Lezamako plana onartu arrazoi hauen-gatik: telekomunikazio-txostenik aurkeztu ez izana, prozesu parte-



behin betiko orenak

hartzailea berandu bultzatu izana, balio handiko lurra babesteko egin beharreko izapiderik egin ez izana eta lurzoru batean jarduera kutsagarria egon zen aztertze txostenik aurkeztu ez izana. Epaia, berriz, zuzentzat jo zuen planean jasotako etxebizitza-kopurua eta industria-jarduerarako lurzorua handitzeko aurreikuspena, eta berretsi zuen etxebizitzak egin ahal zirela urak hartu zezakeen ustezko lurzoru batean, hori ez baitzen uholde arriskukoa.

Bestela, Lezama Bizirik elkarteak esan du, haiek aurreikusi zuten moduan, helegiteak bakarrik balio izan duela denbora eta dirua galtzeko, eta espero dute "azken balio gabetzeak zabal dezala, partaidetza-tik eta adostasunetik, herrirako plangintza iraunkorra eta bidezkoa egiteko aukera". Horri lotuta, berriro azaldu dute prest daudela "HAPO aurrerakoi eta adostu berri baten negoziazioetan eta tramiteetan laguntzeko", eta, "udalak azken asteetan aipatu duen ildotik, problematikoak ez diren bizitegi-gune batzuk garatzeko zer aukera dagoen aztertze". Aurrekoetxeak gogora ekarri du hiri-antolamenduko plan orokorrak beti egin direla herritarren parte-hartzearekin, eta horrela egiten jarraituko dutela. Hala ere, kezkatuta agertu da Lezama Bizirik elkarteak izan ahal duen jarrerarekin, hurrengo planaren punturen batekin ados ez badaude.



a: Josu Uribe

ZAMUDIOKO RALLYA, EURIPEAN.– Zamudioko Rallya azaroaren 15ean eta 16an egin zen zazpigarren aldiz. Abiadura kategorian, Xabier Lujua eta Jesus Estrada (kenako Trapaga) izan ziren txapeldunak; eta erregularitasuna kategorian, Asier Gutierrez derioztarra eta Gorka Fauri (Zamudio Racing). "Eguraldi penagarria egin zuen eta eskerrak eman nahi dizkiegu boluntarioei", adierazi dute antolzaileek.

EAJ, lehen alderdia Txorierrin

Espainiako Diputatuen Kongresurako hauteskundearen harira, EAJ-PNV alderdiak 5.453 boto lortu ditu Txorierrin; apirileko hauteskundeetan baino 282 boto gutxiago. EH Bildu bigarren alderdia da gurean: 2.347 boto (28 boto gehiago); PSOE, hirugarrena: 1.499 boto (208 gutxiago); eta Unidas Podemos, laugarrena: 1.490 (460 boto gutxiago).

Bestalde, PPK 636 boto eskuratu ditu (73 boto gehiago); VOXek 176 (14 boto gutxiago); eta Ciudadanosek 103 (202 boto gutxiago). Mas Pais alderdiak 151 boto erdietsi ditu Txorierrin, hauteskundeetara aurkeztu den lehenengo aldia. Parte-hartzeari dagokionez, azaroan 12.079 txorieritarrek hartu dute parte hauteskundeetan, apirilean baino 1.019 lagun gutxiagok, hain zuzen ere.

**Hartz-klinika
IDOIA ZUBIETA**
Osasun-zentroa & Hartz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK – ESTETIKA-ORTODONTZIA
Airetza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322
Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

**OPTIKA IKUSLAN**
Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18
RPS: 184-10

GABONETAKO LOTERIA

7 7 6 6 6

Udalak sondikoztarren eskura ipini du gobernu-plana sondikakoaukera.eus webgunean

Atari horretan, Sondikako Udalak legegintzaldi honetan lehentasuntzat dituen 87 proiektu eman ditu ezagutzera. Webgunearen informazioa hilean behin gaurkotuko da, eta herritarrek, besteak beste, jakin ahalko dute zeintzuk diren egitasmo bakoitzaren nondik norakoak eta gauzatze-maila. Era berean, iradokizunak egin ahalko dituzte.

Sondikakoaukera.eus webgunea aurreko legegintzaldian ipini zen martxan, eta hark izan duen harrera ona ikusita, udalak erabaki du oraingo legislaturan ere erabiltzea gobernu-plana herritarren eta gainerako alderdi politikoen eskura ipintzeko. "Herritarrekin partekatzeak kudeaketa-tresna da, gardena, eta XXI. mendeko gobernantza-ereduari jarraitzen dio", adierazi du Xabier Zubiaur alkateak. "Udalaren egunerokotasunean prozesu gehiago dauden arren, jarraipena behar dutenak jaso ditugu atarian, euren bilakaera ikusteko".

Webgunea euskaraz zein gaztelaniaz kontsultatu daiteke, eta orotara 87 egitasmo batu dituzte hiru ataletan bereizita: legealdiko lehentasunezko proiektuak, lehentasunezko kudeaketako proiektuak eta modernizazio proiektuak. Legealdiko lehentasunezko proiektuen atalean 17 egitasmo jaso dituzte, hala nola haurparkea estaltzea, argiteria publikoa eta eraginkortasun energetikoa, eskolako jolastokian estalkia ipintzea eta Artxanda biziberritzeko plana. Bestalde, lehentasunezko kudeaketako proiektuen atalean 42 egitasmo daude, esate baterako, Ola-Sondika tren-linearen jarraipena, merkataritza indartzea, enplegua sustatzea kirol-azpiegiturak hobetzea eta puntu beltzen mapa egitea. Azkenik, modernizazio proiektuen atalean jadanik martxan dauden edota



hobetu nahi diren 28 egitasmo jaso dira; horien artean, hauek daude: hiriko eta udal-eraikinen mantentze-lanak, bide-seinaleak hobetzea, berdeguneak zaintzeko eta zaborra biltzeko zerbitzuen kalitateari eustea eta kultur eskaintza. Proiektu bakoitzaren gaineko informazio zabala ere

eskaintzen da webgunean, eta herritarrek ekarpena egiteko aukera dute. "LED argiak udalerrri osora zabaltzen jarraitu nahi dugu, gazteek aisialdia emateko eta ikasketako guneak zabaltzeko, txikiek jolas-parke estalia izan dezatela... Proiektu asko ditugu Sondikarako eta legealdi honetan gauzatu nahi ditugu".

Egitasmoak era berean beste lau ataletan sailkatu dira: Sondikako garapena, hirigintza garatzeko edo administrazioa hobetzeko jarduketak biltzen dituen; Sondikako jendea, herritarrei eskaintzen zaion laguntza eta herritarren garapena hobetzea helburu duten ekintzak batzen dituen; Sondikako bihotza, kulturari, euskarari, balioei eta Sondikako historiari lotutako egitasmoak jasotzen dituen; eta Sondikako auzoak, auzoak hobetzeko ekimenak biltzen dituen.

XXIII. EUSKAL AZOKA, SONDIKAN.

Euria eta eguraldi txarra egonda ere, azaroaren 17an hainbat herritar eta bisitari hurbildu ziren Sondikako Euskal Azokara. Bertan, baserriko produkturik onenak erosteko aukera izan ziren, hala nola barazkiak, marmeladak eta txakolina; baita artisauek egindako eskulanak ere. Gainera, goiz osoan zehar beste ekintza batzuk izan ziren, esate baterako, txalaparta erakustaldia eta umeentzako tailerrak. Bertso-saioa egon zen Malen Amenabarren eta Jone Uriaren eskutik, eta erraldoiak eta buru-handiak dantzapoteoan irten ziren Gorantzaileak taldeko dantzariekin batera. Amaitzeko, Bentazaharreko mutiko alaiak taldeak dantzan ipini zituen bertaratutakoak.



a: Juanjo Ortiz

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kirmasajak

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txotxerri etorbidea, 9 - Lortze | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 637 79 54 45
info@dentarzaiznduz.com | www.dentarzaiznduz.com

HAUR-MODA
TxIMELETA

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Ekitaldiak, munduko emakumeek jasaten duten indarkeria salatzen

Azaroaren 25a Emakumearen Aurka-ko Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna izango da, eta, aurrekoetan legez, hainbat ekitaldi antolatu dira data horren inguruan, munduko emakumeek jasaten duten indarkeria salatzen.

Ekintzetariko batzuk azaroaren alea kalean egon orduko eginda egon dira, baina datozen egunotan ere hainbat ekitaldi izango dira. Garrasia Sondikako talde feministak, esate baterako, informazio-standa ipiniko du hilaren 23an eta 24an, goizean, Txorierri etorbidean (Gaztaña-ga tabernaren aurrean). Gainera, hilaren 24an ere, 13:30ean, *Women in black* ekintza egingo dute Ikurriña plazan. Hilaren 25erako elkarretaratzea deitu dute. Hori 18:00etan izango da Ikurriña plazan: manifestua irakurriko dute, manifestazioan aterako dira herritik eta gero Bilboko manifestaziora joango dira.

Loiuko liburutegian *Hezkidetzako irakurketa sustatzeko gogoetak* gida ipiniko dute erabiltzaileen eskura, eta berdintasunean hezteko liburuaren erakusketa egongo da. Derion, elkarretaratzea egin, eta adierazpena irakurriko da hilaren 25ean, 12:30ean, Euskalerria kalean. Arratsaldeko 19:30ean, eta Koxak talde feministaren eskutik, beste elkarretaratze bat izango da Aralar kalean (Amets gozoki-dendaren ondoan). Bestalde, talde feministak zineforuma antolatu du hilaren 27rako. Hori 19:00etan izango da Kultur Birikan eta *Vol-lar* dokumentala ikusiko dute.

Azaroaren 23an, emakumeen arteko boxeo gau-jaia egongo da Zamudioko kiroldegian, herriko boxeo taldeak antolatua; eta hilaren 25ean, elkarretaratzea egingo da 12:00etan, kultur etxean. Zazpita Gorriak talde feministak egun horretarako ere elkarretaratzea deitu du 19:00etan,



a: Idoia Andres

Leizaola plazan, eta hilaren 30erako "Amor, sexo y otras movidas" hitzaldi-tailerra antolatu du. Ekintza 19:00etan izango da kultura etxeko gimnasioan eta La Psicowoman-ek eskainiko du.

Autodefentsa feminista

Lezaman, elkarretaratzea egingo dute azaroaren 25ean, 13:30ean, plazan, eta 19:00etan leku berean batuko dira berriro Moreak talde feministak deitua. Horren ondoren, 19:30ean, bertso-saioa egongo da Oihana Bartras eta Jone Uria bertsolariekin. Azkenik, Larrabetzun "Jantzigitza-aren industriako emakumeak" erakusketa ipiniko da ikusgai azaroaren 29ra arte. Zutunik talde feministak antolatuta, *Women in black* ekintza egingo dute azaroaren 24an, 13:00etan, plazan; eta elkarretaratzea, hilaren 25ean, 19:00etan, plazan. Halaber, azaroaren 28an, 18:30ean, autode-



La psicowoman. iturria: diariodeavisos.elespanol.com

fentsa feminista ikastaroa izango da Hori Bai gaztetxean.

Bestetik, herrietako gaztelekuetan eta liburutegietan ere programazio berezia egongo da azaroaren 25aren harira.

Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA



MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12

Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

Jatetxea SAN ISIDRO

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOROGINTZA APARTEA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak

Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98 Fax: 94 454 14 18

Mungialde etorbidea, 25 48160 DERIO

tik tak

EGUNEKO MENUA

Beharngo platera
bigarren platera
postrea
ogia
esnea

9€

T: 94 454 55 55

Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Udal kiroldegia egingo da Loiu

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, kiroldegia Zabaloetxe pilotalekuaren ondoan eraikiko da, azpiegitura hori aprobetxatzeko eta kostuak gutxitzeko. Kiroldegia hiru gune edukiko ditu: fitness-aretoa, spinning-a egiteko gunea eta hainbat kirol egin ahal izateko erabilera anitzeko aretoa, hala nola pilatesa, aerobic-a eta body combat-a.

Loiuztarrak herrian dauden ikastetxe pribatueta kiroldegietara joan ohi dira kirola egitera, eta azpiegitura berriak erantzuna eman-go dio beharizan horri. Era berean, tresna izango da gazteengan zein nagusiengan jarduerak fisikoa eta ohitura osasungarriak sustatzeko. Bestalde, Begoña adierazitakoaren arabera, pilotalekuaren eta kiroldegia artean beirate bat ipiniko da, azpiegitura biak kirol-esparru bakar batean integratu daitezkeen. Proiektuaren diseinua datozen asteetarako bukatuko dute.



a: josuandoni.eus

Larrabetzuko udaletxea berritzea, legealdiko inbertsio nagusia



Larrabetzuko Udalak datozen lau urteetako inbertsio-plan estrategikoa aurkeztu du. Orotara 2.085.000 euro inbertituko dituzte herriko hainbat azpiegitura hobetzeko, eta inbertsiorik handiena, 950.000 euro, udaletxea erabat birmoldatzera zuzenduko dute. Azaldu dutenez, udaletxeak ez ditu oinarritzko irisgarritasun-arauak betetzen, lekua ez dago ondo erabilia eta, gainera, oso egoera txarrean dago. Erabateko berriztatzeari esker bete nahi dituzte helburu bi: alde batetik, herritar guztiak udaletxera erraz sartu ahal izatea eta, bestetik, lekua optimizatzea eta herritarrentzat eta elkarteentzat gune berriak sortzea. Inbertsio hori guztiaren % 43 izango da, hala ere, adierazitakoaren arabera, diru publikoa beste azpiegitura estrategikoa batzuetara ere bideratuko dute.

Besteak beste, eskolaren isolamendua eta energia-eraginkortasuna hobetzeko lanak egingo dira (200.000 euro), kirol-azpiegiturak ere hobetuko dira (210.000 euro) eta eskolako jolas-gunea estaliko da (125.000 euro). Era berean, errepideak atonduko dira (100.000 euro) eta euri-uren sarea eta saneamendu-sarea bereiziko dira (400.000 euro). Azkenik, jarraipena emango zaio mugikortasun-planari (100.000).

Inbertsio-plana herritarren iradokizunetan eta gobernu-taldearen hauteskunde-programan oinarritzen da eta lau finantziario-bide izango ditu: 2019ko soberakina (200.000 euro), 2020-2023ko aurrekontuak (1.105.000 euro), mailegu bat (400.000 euro) eta dirulaguntzak (380.000 euro).

GOXO-GOXO LOHITZUN
Arretzeldar zabalik
Ogile egutero
Postalek enkargatzen
Garaioitza, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
gogogoxolohitzun@hotmail.com

LEJARRENE JATEETXEA
Garaioitza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

TABERNA GAZTEDEI
Eguneko menuak
Ospakizunak
Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

RADIO TAXI FEMADE
Zure taxi, Teorierikoa
Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu
24h 94 480 09 09
ERRESERBAK:
www.taxisarepuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A
TAXI FEMADE

Carrefour express
ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Ezartutakoa
9:00-14:30
Pago kalda, 5
48170 ZAMUDIO



Rafael Gonzalez Vega | Arriskuak zatitzen

Azaroa heze, euritsu eta haizetsu hasi dugu Txorierrin, eta Viveros Pericako Rafael Gonzalez ibili da eguraldi zoroak lehen asteburuan sortutako sarraskia konpontzen. Era honetako mantentze-lanak egiten 18 urte zituela hasi zen; azaroan, 45 urterekin, Derioko Ganbe basoan izan dugu haizeak suntsitutako zuhaitzen enborrak motozerrarekin moztzen, oinezkoen istripuak ekiditeko.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
@jongoikouria

Bidera arbola bat jausten danean, zer? Moztu behar badira zenbait adar oker... Bideak garbi doguz eskoi eta ezker Rafaren motozerra ta lanari esker!

Itallen Bertso Eskola

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisolo 4, behea B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN HIZKUNTZA EGOERA

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKARETA ERRAZ

BETE ZURE AUTO-DIAGNOSTIKOA

bai euskarari

baieuskarari.eus
/baieuskarariiziurtagiria
@baieuskarari

Ziurtagiriaren Elkarte

Lan eta bizi euskaraz

GALAIISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Elengabeko ordutegia

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

IRATXO
gozotegia

tarta pertsonalizatuak
brufak
txakak
pastelak
pastak

Mikel Zarate, 2 - 5. leña | Sondika, 48150 | 94 445 89 19

“Hau gauza puntual bat da; tradizioa zaintzen jarraitu behar dugu”

ARITZ SALAMANCA | Tio Teronen Semeak taldeko kidea eta koreografoa

t: Itxaso Marina Ondarroat / a: Borja Aginagalde

Zer dela eta sortu zen Tio Teronen Semeak taldea?

Taldekideok bizitza osoan ibili gara dantza tradizionalan. Hainbeste entsegu, emanaldi eta jaialdiren ondoren, momentu piloa dugu adiskidetasunerako, eta euskal dantzak maitatzen ditugun arren, batzuetan oso zorrotzak eta serioak dira eta ezin dugu gure barruko zentzu txistezalea oholtza gainean adierazi. Gure adiskidetasuna, hurbiltasuna... plazaratu behar genuen eta, horregatik, umoretik sortu genuen Tio Teronen Semeak taldea.

Izen bitxia ipini diozue taldeari; hala ere, oso harreman estua du dantza tradizionalarekin.

Gure inguruan, Donostialdean, *tio teron tireron taron...* fonemak erabiltzen ditugu edozein euskal dantza egiteko, au-

Tio Teronen Semeak taldeko dantzariak euskal dantza tradizionala eta umorea uztartzen dituzte ikuskizunetan, eta euren talentuari eta sinpatiari esker publikoa eurenganatzten dute plazarik plaza. Azaroan, Larrabetzun izan dira Bizkargi dantza taldearen bosgarren urteurrena ospatzen.

reskua zein fandangoa edo arin-arina. Eta, beraz, fonema horiek entzuten ditugunean zuzen-zuzenean lotzen ditugu euskal dantza tradizionalarekin. Tio Teronen Semeak izenak gauza ezberdinak biltzen zituela iruditzen zitzaigun: euskara, euskal dantza tradizionalak eta umorea.

Hamabost dantzari eta lau musikari zarete; zaila izan behar da guztiak ados jartzea.

Gu lehenik lagunak gara, eta lehenengo eta behin lagun taldea sortu zen; dantza taldea, gero. Dantza talde ezberdinetatik gatozenez, lehenagotik ezagutzen genuen elkar eta oso ondo konpontzen gara gure artean. Egia da irizpide batzuk ezarri behar direla eta taldeari norabidea eman behar zaiola, baina erabakiak guztion ar-

tean hartzen ditugu gehienetan eta ahalik eta asanblearioenak izaten saiatzen gara.

Euskal dantza taldeetan neskak izan ohi dira nagusi; zurean, ordez, dantzari guztiak gizonezkoak zarete. Apropos eginda?

Eider musikarietarikoa bat da, eta bera izan ezik beste guztiok gizonezkoak gara. Gauza bitxia da, gure beste proiektu guztietan neska gehiago baitaude, dantza taldeetan nahiz beste egitasmo batzuetan. Zergatik garen dantzari guztiok gizonezkoak? Bada, *Freschool* ikuskizuna saio puntual bat emateko sortu genuen. Euskal Herriko edozein kuadrillak gau batean izan litzakeen abenturak edo esperientziak kontatu nahi genituen haren



bidez, eta konturatu ginen Euskal Herriko txikiteroen kuadrilla tipikoa mutilena zela. Ikuskizuna asmatu genuenean, ez genuen espero ez taldea sortzea, ez 100 emanalditik gora ematea; hala ere, ikuskizunak oso arrakasta handia izan zuen eta birala egin zen eta, ondorioz, taldea osatu zen. Dena dela, ez dugu gurea mutilen taldeetat jotzen, eta, horren harira, gurean hiru emakumezko musikari edota bi emakumezko dantzari ere egon zitezkeen.

Lau urte pasatu dira lehenengo emanaldi puntual horretatik. Zertan dantzaren arrakasta?

Alde batetik, oso gauza hurbila eta ulerterraza eskaintzen dugu: dantzariek hori eskertzen dute, zeren eta dantza bizi-tasuna eta euskal dantza tradizionalen eta euskal doinuen erreferentzia asko baititu; eta euskal dantzen mundua ezagutzen ez dutenek, zeren umore- eta antzerki-alderdi hori du eta erabiltzen ditugun soinuak oso ezagunak dira. Bestetik, saioak kalean eskaintzen ditugu beti eta kaleak hainbat baliabide ematen dizkizu: edozein gauza txertatzeko aukera, honetaz edo besteaz baliatzea... Gainera, lagunaren taldea garen, oso giro ona dago gure artean eta hori ere kutsatzen da. Guk bagenekien umore-rea zegoela euskal kulturaren, baina dantza munduan oso gutxitan ikusten dira gurea lako ikuskizunak, eta, horri dagokionez, uste dugu bide berri bat zabaldu dugula.

Beldurrik izan diozue puristen erantzunari?

Lehendabiziko saioa egin genuenean, beldurrez baino errespetuz irten ginen plazara. Izan ere, dantzariek ibilbide tradizionala dugu eta jendeak horrela ezagutzen gaitu eta ez genekien nola hartuko zuten. Harrera sekulakoa izan zen, eta gaur egun gure jarraitzaile gehienek zerikusia dute euskal dantza tradizionalarekin; puristek, jakina, pentsa dezakete hau ez dela egokia dantza tradizionalerako. Nolanahi ere, argi utzi behar dugu guk ez dugula bata bestea ordezkatzea nahi; ezta hurrik ere: guk



dantza tradizionala dantzatzeko eta maitatzeko jarraitzen dugu, eta hau gauza puntual bat da. Are gehiago, tradizioa zaintzen eta transmititzen jarraitu behar dugu.

Aipatutako Freschool lanaz gainera, beste ikuskizun bat duzue: Festamentua. Gustu eta irudimen handia eduki behar dira euskal dantza tradizionalak break dancearekin edo Michael Jacksonen pausoekin uztartzeko.

Egia esan, taldekide guztiok gara nahi-ko saltseroak. Euskal dantzen pauso batzuk oso erraz uztartu daitezke beste musika batzuekin, eta parrandan-eta ibili garen horrelako "txorakeriak" egin ditugu askotan. Hortaz, bagenekien gauza batzuek oso ondo funtzionatzeko zutela, eta gu ere eroso sentitzen ginen. Koreografiak ildo horretatik sortzen joan dira.

Nahiz eta ikuskizunak egitura zehatzak izan, bat-batekotasunerako tartea uzten duzue beti.

Bai. Trantsizio-uneak izaten dira dantza batetik bestera, eta lekuaren nolakotasunak edo hainbat gauza txertatzen ditu-

gu. Ikuskizun biek aukera ematen digute gauza horiek gureganatzeko eta gureak egiteko. Bai publikoari, bai guri gustatzen zaigu tokian tokiko bertsoak, dantza edo txisteak erabiltzea. Gure lana ezagutzen ez duenari esango nioke emanaldiren batera hurbiltzeko, gauza ezberdina eta originala topatzeko duelako; eta ezagutzen duenari, jarraitzeko gure emanaldietara etortzen, beti gauza berriak aurkituko ditu eta.

Amaitzeko, zertan ibiliko zarete datorren urtean?

Festamentua orain urte eta erdi estreinatua genuen, eta uste dugu gutxienez beste urte bateko ibilbidea izango duela. Datorren urtean, beraz, ikuskizun horretan kokatzeko gara; baina *Feschool* ikuskizunean ere, izan ere, oraindik deitzen digute hura egiteko. Eta hurrengo urtean, 2021ean, ikusten badugu oraindik motibatuta gaudela, bada, aurrera jarraituko dugu; aitzitik, zikloa amaitu behar dela erabakitzen badugu, bada, amaituko dugu. Ez zaigu gustatzen epe luzeko helburuak jartzea, denboraldia funtzionatzen dugu eta.

"Ikuskizuna asmatu genuenean, ez genuen espero ez taldea sortzea, ez 100 emanalditik gora ematea"

"Dantza munduan oso gutxitan ikusten dira gurea lako ikuskizunak, eta uste dugu bide berri bat zabaldu dugula"

"Bai publikoari, bai guri gustatzen zaigu tokian tokiko bertsoak, dantza edo txisteak erabiltzea"



"Ez dot inoz pentsau hain gora helduko nintzanik"

LEIA ZARATE | Athleticen jokalaria

Athletic sortu zanetik hainbat txorierritar ibili dira emakumezkoen taldean: Amaia Olabarrieta, Iraia Iturregi, Jule-ne Guarrotxena, Joana Flaviano... Gaur egun, oster, Leia Zarate lezamarra da gure ordezkari bakarra. Leia gaztea da, baina bere izenak adierazoten dauen moduan, baita kementsua be.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Athletic Club

Zelan hasi zinan futboleko jokatzen?

Bospasei urte nebazala Bizia Lezama-ko futbol eskolan hasi nintzan jokatzen. Ez zegoen neska askorik, baina ez dot inoz mutilakaz jokatzeke arazorik izan. Etxean oso kirolariak izan gara beti eta horrek laguntzen deutsu kirolean murgiltzen. Pelotan be jokatzen neban txikitan.

Zergaitik aukeratu zenuen futbola, eta ez pelotea?

Indarra pelotan futboleko baino garrantzitsuagoa da, eta ni ez nintzan mutilen mailara heltzen; futboleko, oster, bai: euren mailan jokatzeke gauza nintzan. Ganera, futbola taldeko kirola da eta hori be gustetan jat.

Zelan hartu zenuen Athleticen fitxaketea?

Bizia taldetik Derio taldera joan nintzan jokatzeke. Hamalau urte nebazala, min hartu neban belaunean eta ebakuntza egin behar izan eusten. Osatu nintzean, Athleticen bigarren taldean hasi nintzan jokatzen. Deitu eustenean pozozik ipini nintzan, jakina, Athleticen inon baino hobeto egongo nintzala banekialako.

Txikitan Athleticen jokatzeke ametsa zenuen?

Ez dot inoz pentsau hain gora helduko nintzanik. Futbola izugarri gustatzen jat betidanik, asko disrutetan dot entrenetan eta jokatzen. Eta gaur egun futbola 24 ordu egunean dot buruan, bai astean zehar, bai asteburuetan.

Gitxieneko batzuk

Leia Zarate Gonzalez lezamarra (1998/03/27) 2016an egin eban debuta Athleticen lehenengo taldean, baina klubean 2014an sartu zan, bigarren taldean. Guztira, talde zuri-gorrian 71 partida jokatu dauz eta bost gol sartu. Leiak inork baino hobeto ezagutu dau azken urteotan emakumezkoen futbolak euki dauen gorakada. Horren haritik, jokalariek lan-baldintzak be gero eta hobek izatea gura dabe. Horregaitik, gre-bea egin dabe azaroan. "Agian, nik Athleticen baldintza onak dodaz,

baina beste taldeko kide batek, ordea, ez. Beraz, azpimarratu gurako neuke jokalaria guztiok bat egin dogula, alkarri laguntza emoteko".

Lezamarraren ustez, neskek "gitxieneko batzuk" besterik ez dabez eskatzen. "Azken hilabeteotan negoziatzen ibili gara, hitzarmen kolektiboa sinatzeko, baina ez dogu ezer lortu. Beraz, grebara deitzea beharrezkotzat jo genduan. Eta ez pentsa milioiak eta milioiak kobrau gura doguzala. Eskatzen doguna klub guztiek ordaindu ahal dabe". Jokalariek 12.000 euro urtean kobratzea eskatu dabe eta klubek

8.000 euro eskini dabez. Azkenean, Estaduko futbolariak grebea egin dabe azaroaren 16an eta 17an.

Futbola Zarateren bizitza da, baina horrezaz aparte, lezamarra etorkizuna bermatu gura dau eta Pedagogia dabil ikasten. "Lehen Deustun ikasten neban, baina orain goizez entrenetan dogunez, Unir Errioxako Nazioarteko Unibertsitatearen bidez nabil ikasten, online, arrastietan". Futbolari izateari itxi daienean ez daki zer egingo dauen, baina "arazoak dabezan lagunakaz" behar egitea gustau litxakio. "Kirola eta pedagogia gusetan jataz eta biak buztartu gurako neukez".



"Gaur egun
futbola 24 ordu
egunean
dot buruan"

"20. zenbakia daroat
Adurizek be eroaten
dauelako: biok gara
aurrelariak eta bera
erreferentea da"

Orain dala hiru urte egin zenduan debuta lehenengo taldean. Zelan da-roazu taldean finkatzeko prozesua?

Gatxa da. Ia partidu guztietan hartzen dot parte, baina gehienetan aulkitik ateratzen naz eta bakarrik 10-15 minutu emoten dodaz zelaian. Eta ez da gauza bera hasierako hamaikakoan hastea edo ordezkari ateratzea. Entrenatzaileak esan deusku taldeak guztiok behar gaituala, eta aurtien ia guztiok izan gara titularrak partidaren batean. Horrek motibazioa emoten deusku.

Zelango ametsa dozu Athleticen?

Epe laburrean, hasierako hamaikakoan sarriago sartu gurako neuke. Tira, eta barriro Liga irabaztea lortuko bagendu, edo Kopa, zoragarria izango litzateke. Badakit oso zaila dala: taldeak gero eta hobeak dira, gero eta atzerritar eta jokalaririk hobeak dagoz, klubak gero eta profesionalagoak dira... Halanda be, guk partidu guztiak irabazi gura doguz eta horretarako ateratzen gara zelaira.

Athleticen lorpen handi bi bizi izan dozuz: Liga irabaztea eta San Mamesen 50.000 ikusleren aurrean jolastea. Zein izan zen onena?

Onena ezin dot esan. Bakotxa era desbardin baten disfrutau genduan. Liga hainbat egunetan zehar gozatu genduan. Eta San Mamesen jolastea be zoragarria izan zan. Bertan entrenatzea bakarrik itzela da eta, ganera, Atletico de Madrid taldearen kontrako partiduan zelaia erabat beteta ikustea zirrargarria izan zan. Ez daukat hitzik.

Bukatzeko, bitxikeria bi: bata, izena, Leia. Nondik dator?

Jenteak uste dau *Star Wars* filmeen pertsonaiari dagoala lotuta, baina ez da hori. Amari gustetan jakon Leia izena, indarra adierazoten dauelako. Antza danez, arazo piloa euki ebazan eroldan jartzeko, baina azkenean, hainbat paper eta kutxa bat pastel bidalita, lortu egin eban.

Eta bestea, zenbakia. Zergaitik da-roazu 20. zenbakia?

Gaztetan beste zenbaki batzuk euki dodaz, baina Athleticera heldu nintzanean, batzuk nebazan aukeran. Horreetako bat 20. zenbakia zan eta mutilen taldeari buruz hasi nintzan pentsatzen. Han Aritz Adurizek daroa hogeigarrena, eta erreferente ezin hobe iruditu jatan: biok gara aurrelariak, mutil jatorra da... Orain 20a da nire zenbakia.



Unitzaga Itzala Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
46190 - DEPIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net
Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanziazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industriako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

200 pertsona baino gehiago, Ekintzailtza eta Enplegu Egunean



Urriaren 24an, 200 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte Txorierriko Ekintzailtza eta Enplegu Egunean. Ekitaldia Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Gazteria Zerbitzuak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu zuten, EGAZ Txorierriren laguntzarekin eta Gaztedi Bizkaia foru programaren barruan. Ekitaldia Derioko Kultur Birikan egin zen, eta hainbat hitzaldi, ekintzailtza-dinamika eta enplegura bideratutako hizketaldi antolatu ziren.

Goizeko hamarretatik arratsaldeko ordu biak arte, bertaratu ziren eta aretoa bete zuten gazteek aukera izan zuten prestatzaile eta ekintzaileekin harreman zuzena izateko. Gainera, azken horiek beren ekintzailtza-esperientziak partekatu zituzten. Txorierriko gazteen enplegarritasuna hobetzeaz eta eskualdearen lehiakortasuna bultzatzeaz gain, ekimenaren helburu nagusia izan zen lan bila dabiltzan edo beren ibilbide profesionala orientatzeko asmoz informazioa jaso nahi duten gazteak ekintzailtzaeren errealitatera gerturatzea.

Horixe transmititu zuen Josu Andoni Begoña Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko presidenteak irekiera-hitzaldian, eta honako hau azpimarratu zuen: "Ideiak, ahalegina eta ilusioa oso garrantzitsuak dira edozein enpresaren arrakastari begira, baina ezin dugu alde batera utzi prestakuntza egokia izatea ere oso

garrantzitsua dela, arrakasta-berme handiagoa emango baitugu".

Mankomunitateak Kultur Birika bete zuten lagun guztiak motibatu nahi izan zituen. Horretarako, lehen hitzaldiak ekintzailtzaeren bideari ekin dioten pertsonen benetako kasuak jorratu zituen. Hainbat ekintzailek hartu zuten parte hitzaldian, tartean Antonio Laso (Aleovitro bioteknologia-enpresakoa; Zamudioko BIC Bizkaia eraikinean dago), Irene Rodríguez (Iddtek ingeniari-tza-enpresakoa), Virginia Pons (esperientzien eta gastronomiaren arloko ekintzailea) eta Idoya García (Boxsr).

Hitzaldien lehen tarte horretan, beste hitzaldi batzuk ere izan ziren: Eneko Barcinarena, Derioko Politeknika Ikastegiko ekintzailtza-bideoen lehiaketako irabazlearena; Aitor Iasirena, Euskal Herriko Unibertsitateko Zitek ekintzailtza-programa zertan datzan azaldu zuena; eta Iñigo Mazorena, EGAZ Txorierriko sustapen ekonomikoko teknikariarena. Bertaratuek, halaber, ekintzailtza-prozesua bertatik bertara ezagutu ahal izan zuten, Susana Vidal EGAZeko teknikariak eginiko dinamika baten bidez.

Ondoren, Ainhoa Oar nazioarteko orientatzaileak hitz egin zuen nazioarteko programek (Ploteus, Erasmus, Erasmus+, Europako Boluntariotza Zerbitzua, etab.) eskaintzen dituzten prestakuntza-aukerei buruz, eta, batez ere, gure mugetatik kanpoko "heziketa ez-formala" azpimarratu zuen. Lanbide –Euskal Enplegu Zerbitzua– ere izan zen jardunaldian; Susana Cejudok, Bizkaiko zerbitzuaren lurralde arduradunak, erakunde publikoak lana bilatzeko eskaintzen dituen aukeren berri eman zuen. "Etorkizun hurbila askoz malguagoa izango da. Errazagoa izango da lana aurkitzea, baina proiektuen arabera lan gehiago ere egongo da", azaldu zuen.

**INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGIN IEZAIOZU ETA
AZAROAREN 25ERAKO PROGRAMATUTAKO
EKINTZETAN PARTE HARTU!**

**EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ**

t: Itxaso Marina Ondarroa

“Gaia gustatzen zait, baina aurretik ere banuen jorratuta eta ez nuen errepikakorra izan nahi. Horregatik, beste ikuspuntu batetik heldu diot: benetako sorginen ehiza. Izan ere, sorginen ehizaren egiazko helburua ez zen han edo hemen emakume bat hiltzea, herri osoa beldurtzea baizik”, azaldu digu. *Sorgin belarra* eleberriko orrialdeen bidez, irakurlea XVI. mendeko Nafarroara eramaten du, Erronkariko, Zaraitzuko, Aezkoako eta Erroko bailaretara. “Nafarroako sorginez aritzen garenean Zugarramurdiz egiten dugu (Logroñoako autofedea, 1610), baina sorginen ehiza lehenago hasi zen Erresuman eta askoz gogorragoa izan zen. 1507. urtean, 30 emakume nafar eta bizkaitar hil zituzten Calahorran, eta 1525 eta 1527 urteen artean, kopurua 100 eta 200 pertsona artekoa izan zen; 1536. urtean, beste 20 lagun akabatu zituzten. Nolanahi ere, gehien interesatzen zaidana Inkisizioaren kontua da. Espainiako Inkisizioan gehienbat eliz epaileak ibili ziren arren, Nafarroan epaile zibilak aritu ziren. Zer egiten zuten horiek Pirinio ingurueta haranetan sorgin bila?”. Erantzuna Nafarroako Erresumaren konkistan topatu du.

“Konkista 1512. urtean hasi eta 1527. urtean amaitu zen, Carlos V.ak Nafarroa Behereari uko egitea eta bakarrik hegoaldearekin geratzea erabaki zuenean. Bataila handiak amaituta, lehen aipatutako haranetako lagunek jarraitu zuten borrokan, euren erara: zergak ez ordaindu, soldaduen patruilei eraso egin... Garai hartan, Pedro de Balanza izan zen inkisidorea eta errege kontseilaria. Legeetan eta kanonetan lizentziatua zen, eta oso pertsona jantzia. 1521. urtean Iparraldean ibili zen armada espainiarrarekin, eta 1525. urtean, Erronkarin sorgin bila. Hain jakintsua izanda ez zuen uste izango emakume batzuek erratz gainean hegan egiten zutela, ezta? Bada, ez: herritarrak ikaratzeko eta konkista behin betiko amaitzeko modua zen”.

*“Sorginen ehiza
herritarrak ikaratzeko
eta konkista behin
betiko amaitzeko
modua izan zen”*

Inkisidoreak eta sorgina

Azken eleberriri begira, Toti Martinez de Lezea Larrabetzuko idazleak Facebookeko jarraitzaileei galdetu zien zeri buruz irakurri nahi zuten, eta gehienek sorginak eta Inkisizioa uztartzen zituen istorioa aukeratu zuten. Emaizta *Sorgin belarra* da, sineskerietatik haratago doan nobela.



Biblioteca Toti Martinez de Lezea

Bestetik, larrabetzuarrak Nur gatzetxoentzako ipuin-bildumaren hamabosgarren liburua ere kaleratu du: *Nur eta Olentzero*. “Istoria Larrabetzun da, Gabon egunean, eta protagonistak herriko umeak dira. Neguko solstizioa azaltzen diet bertan, eta ikazkinaren kondaira. Horri dagokionez, kontuz ibili behar izan dut: nire liburuak irakurtzen dituzten gatzetxo batzuek dagoeneko ez dute sinesten Olentzero existitzen dela; beste batzuek, berriz, oraindik jarraitzen dute sinesten. Beraz, zorrotz jokatu behar izan dut, batzuei eta besteei atsegin emateko”. Liburuarekin batera, irakur-

le gazteek erreze-liburu bat jasoko dute, zenbait plater egiten ikas dezaten.

Idazleak beste argitaletxe batzuekin kaleratutako liburu asko agortuta daude, baina irakurleek oraindino eskatzen dituzte. Ereinek eta Martinez de Lezeak bilduma berri bat aterako dute liburuak berrargitaratzeko. “Biblioteca Toti Martinez de Lezea deituko da eta liburuaren formatua formatu arruntaren eta poltsiko liburuaren artekoa izango da. Orain arte idatzitako eleberririk guztiak emango ditugu argitarara, eta lehenak *El jardín de la oca* eta *El verdugo de Dios* izango dira”.

k Nafarroan

Balanza eleberriko pertsonaietako bat da. Inkisidore politikoa da, handinahia, eta gora egin nahi du; Balanzaz gainera, beste pertsonaia nagusi bi daude nobelan: Avellaneda inkisidorea eta Loredi. "Historialari batzuen ustez, Avellaneda ez zen existitu, ez baita inongo dokumentutan edo erregistrotan agertzen. Hala ere, Gazteluko kondestableari idatzi zion gutun bat badago, eta horren laburpena ipini dut liburuaren amaieran. Gutun horretan kontatzen zuenez, bere begiekin ikusi zuen emakume batek gizonak pozoitzeko erabiltzen zen ukenduaz gorputza igurtzi zuela eta leiho batetik hegan irten zela deabruarekin topo egitera. Handik egun batzuetara emakume hura eta beste bost emakume epaitu eta erre zituzten. Benera ikusiko zuen hori? Bai zera, edaberen bat hartuta egongo zen; sorgin belarra, beharbada". Martinez de Lezeak imajinatu duen Avellaneda konplexuz betetako gizona da, identitate-arazoak ditu eta sexu-obsesioa ere badu. Nahiz eta ikasle bikaina izan, oso pertsona itxia da eta uste du leku guztietan bekatua dagoela. Loredik inkisidore biekien egiten du topo istorioan. "Zazpi alabatatik zazpigarrena da. Zazpi semetatik zazpigarrena familiaren heroia seguru izango zen; zazpi alabatatik zazpigarrena, nahitaez, sorgina. Txikitatik hartzen dute sorgintzat eta zergatik hain arraro begiratzen dioten oso ondo ulertu barik hazten da. Aita artzaina da eta mendira eramaten du biziraun dezan".

Atsoen kontuak


Egileak ehiza politikoa eta misoginoa irudikatu du *Sorgin belarra* eleberrian. Era berean, Nafarroako Pirinioetako jendearen bizimodua eta sinesmenak jasotzen ahalegindu da. "Aberrazio baten istorioa da, izan ere, exekutatu zituztenez gainera,

"Espainian, mende bitan exekutatu zituzten 1.000 lagun inguruk ez zuten inoiz aitortu sorginak zirenik"

beste hainbat eta hainbat zigorraren ondorioz hilko ziren seguruenik: zigorradak, ezkerreko oina mozteak, kartzela...". Bestalde, gogora ekarri duenez, Calahorrako eta Zugarramurdiko prozesuetan izan ezik, Espainiako Inkisizioa ez zen sorginen auzietan nahasten. "Atsoen kontuak zirela uste zuten. Haiei kristaututako juduak eta musulmanak interesatzen zitzaizkien, ho-

mosexualak, ezkondu gabe elkarrekin bizi zirenak, luteranoak... Horregatik da hain gogorra Nafarroaren kasua. Halaber, beste herri batzuetako Inkisizioak ez bezala, Espainiakoak ez zituen hiltzen sorginak zirela onartzen zutenak, horiek galeretara zigortzen zituen, zigorradak hartzera, edo erbestera bidaltzen zituzten. Hortik beste ondorio bat atera daiteke: mende bitan exekutatu zituzten 1.000 lagun inguruk ez zuten inoiz aitortu sorginak zirenik".

Arbasoek larreetako belarrak erabiltzen zituzten gaixotasunak sendatzeko. Batzuk pozoitsuak ziren, beste batzuek ezaugarri haluzinogenoak zituzten eta beste batzuk sendagarriak ziren. Belarrek ere, jakina, lekua dute eleberrian, eta lanari izenburua ematen diona *belladonna* da, sorgin belarra.





"Maisua izatea nire benetako bokazinoa izan da beti"

JUAN MIGUEL ATXUTEGI | irakasle eta politikari erretirauta

Juan Miguel Atxutegi nahiko ezaguna da Txorierrin, eta batez be Derion. Izan be, 16 urte emon ebazan alkate, eta beste sei urte, Mankomunidadeko kudeatzaile. Ganera, Txorierriko institutuko irakaslea be izan zan. 2015ean erretiroa hartu eban, eta harrezkero, beste zaletasun batzuk landu dauz: irakurtzea eta idaztea.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Berba egin daigun haurtzaroari buruz. Seminarioa oso garrantzitsua izan zan garai hatan, ezta?

Bai, seminarioaren alboan jaio nintzan. Umetan hartu-emona genduan seminarioagaz: meza-mutila izan nintzan, futboleko jokatzeko genduan seminaristakaz... Ikasi gura neban eta ia konturatu barik, seminariora sartu nintzan. Seminarioan, besteak beste, filosofia, grekoa, frantsesa eta latina ikasi nebazan.

Bokazino kontu bat izan zan ala ikasi gura izate hutsa?

Bokazinoagaz joan nintzan, baina denporearen poderioz, galdu egin neban. Fededuna banaz, baina abadeek eroaten daben bizitzea, bikotekide barik-eta, ez da niretzat.

Eta etxean, zelan hartu eben zu seminariora joan izana?

Hasieran, aitari ez jakon gustau, berak nik baserrian jarraitzea gura ebalako, baina gero pozik ibili zan, mutil zintzoa izan nintzalako eta disgusturik emon ez neuzalako.

Seminarioa amaitu zenduan eta Madrilera joan zinan.

Bai, 21 urte nebazala lan egitea eta bakarrik bizi izatea zer zan jakin gura neban, eta seminarioko batzuk Madrilera joan ginan lan egitera: igeltsero egin neban behar. Esperientzia polita izan zan. Esate baterako, nire andrea Madrilan ezagutu neban. Geroago, Euskal Herrira itzuli ginen selektibitatea egitera.

Eta ondoren?

Zuzenbidea ikasten hasi nintzan, baina epaiketa batera joan nintzanean, konturatu nintzan abokatua ez zala nire

"Seminariora bokazinoagaz joan nintzan, baina denporearen poderioz, hori galdu egin neban"

"Zuzenbidea hasi neban, baina ez neban amaitu. Zelan defendatuko dot morroi bat erruduna dala jakinda?"

"Politikan era naturalean sartu nintzan: EAJkoak herrikoak ziran, betiko lagunak"

ogibidea izango. Zelan defendatuko dot morroi bat erruduna dala jakinda? Non dago abokatuen moralak? Helburuak ez dauz bideak justifikatzen. Beraz, Erromara joatea erabagi neban.

Zergaitik? Zer egin zenduan bertan?

Filosofia titulua eskuratzera joan nintzan. Hemen ez neban aukerarik, bakarrik Frantzia edo Italia. Eta frantsesa ba-

genkianez, seminarioko batzuek erabagi genduan Erromara joatea. Urtebete emon genduan bertan eta zoragarria izan zan, giroa guztiz desbardina zalako. Italian 1969an egon ginan eta hemen diktadura genduan; han, aldiz, zama handia gaintik kendu bagendu moduan bizi ginan: trankil egiten genduan berba, manifestazioetara joaten ginan, ikurriña erakusten genduan... Beste mundu bat zan. Prentsa-kioskoetan eztabaidak sortzen ziran era natural eta espontaneo batean. Eta zineetan be bai. Harrigarriak ziran.

Eta zergaitik itxi Erroma?

Bertako Unibersidadekoek gelditze-ko gonbitea egin eustien, baina oso gitxi ordaintzen eben. Ez zan nahikorik familia aurrera ateratako. Gustauko jatan, baina ezin neban. Eta Madrilera joan nintzan Psikologia ikastera, eta, bitartean, behar egitera.

Madrilan 13 urte emon zenduaz. Zergaitik itzuli zinan etxera?

Nik ez neban Euskal Herrira itzultzeko asmorik, Madrilan, ikastetxe pribadu batean eskolak emoten nebazalako, baina Sestaon grekoa emoteko lanpostua sortu jatan. Handik Errekaldara joan nintzan, oposaketak gainditu, Durangora joan nintzan, eta, azkenean, 1985ean, Deriora.

Garai hatan, politikan be sartu zinan, ezta?

Seminarioan era natural batean sartu nintzan, eta politikan be bai. EAJkoak herrikoak ziran, betiko lagunak. Derion 1983an egin ziran lehenengo aldiz hauteskundeak eta orduan deitu eustien alderdian sartzeko. Nik ezetza emon neuztsien, garai hatan katekesia emoten ibili nintzalako eta politika eta erlijioa nahastu gura ez nebazalako. Azkenean, katekesia



Juan Miguel Atxutegi (Derio, 1946) Bekoetxe baserrian jaio zan. Gaur egun, aldiz, Zamdion bizi da, Geldo auzoan, baina bere berbetan, Derion egiten dau bizitza. "Zamudiora udal izapideak

"Rouco lotsabako handia da"

egitera baino ez naz joaten". Atxutegik 73 urte dauz eta uste dau bere bizitzan gogor egin dauala lan. 2011n erretiroa hartu eban, baina harrezkero ez da geldirik egon. Denpora librea etxeko baratza txikia eta animaliak jagoten emoteaz ganera, batez be zaletasun bi lantzen dauz: irakurtzea eta idaztea.

"Orain denpora gehiago daukat eta 2015ean *El derecho humano de la autodeterminación de Euskadi* liburua argitaratu neban. Ezagun batek esan eustan egunen batean liburua erosi eta erre egingo ebal. Eta orduan erabagi neban nire kabuz saltzea edo oparitzea. Bigarren liburua

idatzita daukat, baina oraindik ez dot argitaratu, zuzentzen nabil. Zuzenbidezko estatua jorratu dot bertan; egurra emoteko irrikan nago (kar, kar)".

Estaduko egoerak eta poteretsuen jarrerak haserraten dabe Juan Miguel, eta horregaitik idazten dau. "Zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta haserre handiagoa harrapatzen dot. Espainiako eleizako pastoralak etxean jasotzen dodaz, eta horreetako batek *El bien de la unidad* eban izena. Rouco Varela lotsabako handia da. Izenburuak haserratu ninduan eta idaztera animau ninduan".

itxi neban eta 1985ean EAJn afiliadu nintzan.

1986an, Eusko Jaurlaritzatik deitu eutsuen bertan lan egiteko. Zer egin zenduan bertan?

Garai hatan, hainbat istilu egozan hezkuntzan eta batzuei aurre egin behar izan neutsien: Bilbon, San Inazion, Intxixu ikastolak ez eban eskolak emoteko leku duintik; Maria Goretti Durangoko ikastetxeak kanpora bota eban hiesak jota ebilen mutil bat... Borrokatzea egokitu jatan. Baina 1987an Alderdi Sozialista sartu zan Eusko Jaurlaritzan eta nik jarraitzeari uko egin neutson. Zer egingo neban nik eurakaz, euskeraren kontra beti agertu badira?

1987an, bigarren hauteskundee-tan, alkate atera zinan.

Derion ez egoan ezer, dana zerotik hasita sortu genduan. Normala zan, Derio 1983an banandu zalako Bilbotik. Institutua baegoan eginda, baina Politeknika egin genduan, esate baterako. Hasieran, ez egoan dirurik eta seminarioko sotoetan emoten ziran eskolak. Asko kostatu jakun,

baina azkenean aurrera atera genduan: lurra Aldundiari eskatu, eraikina egin, tresneria berria erosi...

Guztira, 16 urte emon zenduazan alkate, 2003ra arte. Denpora luzea, ezta?

Bai, niretzat be larregi izan zan. Lagunek esaten eustien erretiroa hartu arte jarraitu behar nebala alkate, baina nik ez neban gura. Behar egiteak ez deust ardurara, baina institutua itzuli gura neban.

Zelango urteak bizi izan zenduazan udalean?

Urte politikak izan ziran, alderdi guztiok Derioren alde lan egin gendualako. Dirurik ez genduan, baina ate guztiak jotzen genduazan dirua lortzeko: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia... Eta azkenean, proiektuak martxan jartzen genduazan. Alderdi euskaldunakaz hartu-emon ona euki dot beti. Arazoak euki genduazan agian, baina berba egiten dana konpon-tzen genduan, pertsonak garalako. Abertzale ez diran alderdiakaz, aldiz, arazoak euki dodaz. Ezin dodaz ikusi. Gauzak ezin

dozuz danon gustura egin, baina, pozik nago.

Arantzarik badozu?

Ez dakit arantza, baina pena emon eustan Mondragon Unibersidadea Derion jarri ez izanak. Hartu-emonetan egon ginnan eurakaz, baina azkenean, zoritxarrez, proiektuak ez eban aurrera egin. Txorierri osorako oso onuragarria izan eitekean: umeak, eskolara; gero, institutura; eta handik, batzuk lanbide heziketara, eta beste batzuk, unibersidadera. Eta gero Parke Teknologikokoagaz berba egin eta praktikak eurakaz egin... Ibilbide osoa etxetik atera barik.

Zu Derioko Udalean zengozala, Mankomunidadea sortu zan. Zergaitik?

Gure ustez, gauza batzuk, oinarritzko zerbitzuak, era koordinadu eta zentzuzko batean kudeatu behar ziran, baliabideak ez xahutzeko: euskara eskolak, gizarte-ongizatea, argia, satsa batzea... Batez be Deriok bultzatu eban Mankomunidadea, baina ez besteek Mankomunidadea gura ez ebelako edo horretarako gogor behar

"Udalekoak urte politikak izan ziran, alderdi guztiek Derioren alde lan egin gendualako"

"Pena emon eustan Mondragon unibersidadea Derion jarri ez izanak"

"Beste politikari batzuekaz arazoak euki dodaz, baina berba egiten konpondu doguz, pertsonak garalako"



egin ez ebelako: Derio herririk handiena zan eta indar gehiena ebana.

Mankomunidadeko kudeatzaile sei urte emon zenduazan. Udala baino gorragoa izan zan?

Ez dakit. Mankomunidadean, ardurea batzuen artean banatu egiten da; udalean, aldiz, zeu zara bakarra. Bietan gogor egin behar da lan, baina bietan egon naz gustura.

Kudeaketa publikogaz batera, jarraitu zenduan irakasle behar egiten. Zergaitik ez zeuntsan itxi? Ez zan behar larregi?

Politikaria izateko ez neban ikasi; irakaslea izateko, bai, ostera. Primeran pasatzen neban eskolak emoten. Maisua izatea nire benetako bokazinoa izan da beti. Duda barik. Batzuek dinoe gazteak nekarriki dirala, baina hori irakasleek kudeatu behar dabe. Maisu hurbila nintzan, beti txantxetan gazteakaz.

Azkenik, euskerari buruz galdetu gura deusut. Zelango da euskerearen egoerea Txorierrin gaur egun?

Guztiok dakigu euskerea gaur egun, baina Txorierrin gitxi erabiltzen da. Beste alde batzuetan –Durangon...–, barriz, kontrakoa, jenteak euskeraz egiten dau. Nire ustez, geure izaerea eta geure izaerearen adierazpena, hau da, euskera bera bultzatu behar dira. Nire garaian, euskaldunok erdaldunak baino gitxiago ginala uste genduan. Orain, beharbada, ez da ozenki esaten, baina pentsaera hori oraindik mantendu egiten da. Beraz, euskaldunok trebeenak izan behar dogu arlo guztietan.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIN UDAL
EUSKALTEGIA



Agur Etxebeste FILMA

DOAKO sarrera
(eserlekuak bete arte)
Edozeinentzako ekitaldi zabala

Abenduaren 3an, asteartea
EUSKARAREN EGUNA
Derioko Gurea aretoan
10:00etan
19:00etan

ERDU GEUGAZI!

...Txorierri euskaldun!

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen dugu 1995. urtetik hona. Data horren inguruan antolatutako ekintzak Derion egingo dira aurten, azaroaren 26tik abenduaren 2ra arte. Ekitaldiak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak antolatu ditu Derioko Udalarren, Tximintx euskaldunen komunitatearen eta herriko taldeen laguntzarekin. Ekintza-sorta zabala izango dugu, euskaraz aritzeko eta euskaraz gozatzeko.

Umeentzako ikuskizunek hasiera emango diote Euskararen Egunari lotuta antolatutako ekitaldi-sortari. Ohikoa den moduan, herri anfitrioiako eskolako umeek aurkezpena egingo dute saio bakoitzaren aurrean, eta, horretarako, muntaia berezia prestatu dute. Gainera, seigarren mailako ikasleek hiru bertso jorratu dituzte Etxahun Lekue bertsolariaren laguntzaz. Bertsoak Txorierriko gainerako eskoletakoei eman zaizkie, ikas ditzaten eta denak elkarrekin saioaren egunean abes ditzaten. Azken bertsoak honela dio: «Txorierri osoko / adiskide, lagun, / egunero euskaraz / hitz egin dezagun. / Euskarak behar ditu / mila milioi egun. / Bihurtu behar dugu / Txorierri euskaldun!».

Horiek horrela, azaroaren 26an, martitzenean, *Kontu kantari* saioa izango da lau urtetik sei urtera bitarteko umeentzat.

*Besteak beste,
antzezlanak, bertso-
poteo musikatua, talo
solidarioa eta musika-
saioak egongo dira*

Txotxongiloen eskutik birpasatuko dituzte 10 haur-kanta, hala nola *Txiki Txikia*, *Ran Rober Ran* eta *Sorgina Pirulina*; baina hori modu berezian egingo dute, izan ere, abestiak reggaearen, raparen edo bluesaren erritmoetara eramango dituzte. Asier Kidam magoak zazpi urtetik 11 urtera bitarteko umei gozaraziko die azaroaren 27an eta 28an. Gasteizko magoak egun bitan eskainiko du emanaldia. «Magia-ikuskizunek oso ondo funtzionatzen dute adin-tarte horietan, eta umeek saioan parte hartzeko aukera ere izan ohi dute. Bestalde, Kidam aurretik ezagutzen dugu: oso mago ona da, umeekin interakzioa lortzen duena eta euskara oso aberatsa du gainera», azaldu du Laura Martinez euskara teknikariak. Umeentzako ikuskizunak kiroldegian izango dira, eta egun bakoitzean saio bi egongo dira. Orotara, 1.236 ume hurbilduko dira saioetara.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailakoen ekitaldia ere azaroaren 28an, egunean, izango da. Gurea Aretoan, musika-topaketak edukiko dituzte Zuriñe Hildagorekin (Hesian) eta Iker Villarekin (Revolta Permanent). Saioaren gaineko material didaktikoa aurretik landu dute musika-eskoletan, eta baten batzuk animatzen badira, agertokira igo ahaliko dira jotzera edo abestera. Ekital-



LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ibazak, orokorrean:
Auzokoen komunitateak
Mantentze garbi-ibazak
Bulegoak eta lokalak
Olinia emateko garbikerak
Baztergarriak
Zabur bilaketa

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

KAFETEGIA

IAZI

JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

Bizkargi

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55





SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago



Bizkaia
EUSKARAREN EGUNA



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA



MARI ERRAUSKIN
Glu glu Teatroa
Antzerkia euskaraz
(3-6 urte)
Abenduak 15, 17:00
Prezioa: 6 €

ABOMINABLE
97' AG (2D)
Abenduak 1, 17:00

LA TRINCHERA INFINITA
147' EG-16 (2D)
Abenduak 1, 19:30

LA OVEJA SHAUN. LA PELÍCULA: GRANJAGÜEDÓN
98' AG (2D)
Abenduak 8, 17:00

SI YO FUERA RICO
98' EG-16 (2D)
Abenduak 8, 19:30

LE MANS'66
152' EG-7 (2D)
Abenduak 15, 19:30

FROZEN II
AG (2D)
Abenduak 22, 17:00

LEGADO EN LOS HUESOS
119' EG-16 (2D)
Abenduak 22, 19:30

LOS ANGELES DE CHARLIE
118' EG-12 (2D)
Abenduak 29, 19:30

41 NEA



2D: 4 € 3D: 6 €

*onarrak: produktorearen behar izanarabera programazioak aldatuak jaraiatzeko



dian 250 gaztek hartuko dute parte txanda bitan.

Publiko orokorrarentzako ekitaldiak ere egunean hasiko dira. Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Asier Sota aktoreek *Jokoz kanpo* antzezlanaren eskainiko dute 19:00etatik aurrera Gurea Aretoan. "Oso oso antzezlan gomendagarria da, barreak egiteko modukoa. Gaia umeen futbola da, eta horrek sortzen dituen iskanbilak: entrenatzaileen artean, gurasoen artean..."

Hori guztia umorez jantzita. Bat baino gehiago identifikatuta sentituko da egokerekin". Hurrengo egunean, barikuan, bertso-saio berezia egingo da arratsaldean: bertso-poteo musikatua, hain zuzen ere. Arkaitz Estiballes eta Oihana Bartra bertsolariak aretotik atera, eta tabernaz taberna ibiliko dira Eingo musika taldeak lagunduta. Ekitaldia 19:00etan hasiko da, eta bertsolariak bat-batean arituko dira 20:30ak arte. Musikaiek, berriz, 22:00ak

arte jarraituko dute tabernarik taberna musika jotzen eta abesten.

Larunbat arratsaldean

Derioko Udalak puzgarriak jarriko ditu zapatuan, hilaren 30ean, frontoian. Puzgarriak 16:00etatik 19:00etara izango dira. Era berean, umeentzako talo-tailerra ere ipiniko du 17:30ean, eta ondoren talo solidarioak egongo dira salgai. Salmentari esker batzen den dirua ImpulsaT elkarte-





*“Ahalegindu gara
adin-tarterik
handienara heltzen eta
ekintza guztiak parte-
hartaileak izaten”*

dian parte hartu zuten norbanakoek eta entitateek papertxo batean idatzi ahal-ko dute egitasmoak zer nolako aldaketa ekarri dien edo nolako bizipenak izan zituzten eta hurrengo ediziotik zer espero duten. Papertxoak soka edo sarean itsatsiko dituzte eta ikusgarri dagoen tokian jarriko dira. Helburua Euskal Herri osoko euskaltzaileen saretzea irudikatzea da.

Azkenik, eta Euskaren Egunaren inguruan antolatutako ekintzei amaiera emateko, Txorierrri Institutuko Batxilergoko gazteek *Just Charlie* filma ikusteko aukera edukiko dute. Pelikula euskaraz eta ingelesez dago, eta guztira 159 gazte ezagutuko dute Charlieren istorioa: protagonista mutil-gorputza duen neska bat da.

“Betiko moduan, egitaraua antolatzeko orduan, ahalegindu gara adin-tarterik handienara heltzen, ekintza guztiak parte-hartaileak izaten eta txorierritar guztiak batzeko gunea izan dadila. Esan bezala, oso ekitaldi parte-hartaileak eta dinamikoak, dira eta espero dugu aurten txorierritar asko Derion biltzea”. Txorierritarrok azaroaren azken asteburuan, beraz, hitzordua dugu euskararekin.

ri emango diote. ImpulsaT elkarteak merosina-urritasunak eragindako sortzetiko muskulu-distrofiaren kontra borrokatzea du helburu. Gaixotasun arraroa da, eta nahiko larria, distrofia hori duten umeek muskuluen tonu txikiagoa, kontrakturak, arnasa hartzeko arazoak... izaten baitituzte. Bestetik, 19:00etatik aurrera, Eida-be taldeak seme-alabak zein gurasoak ipiniko ditu dantzaz *Gora Kasete!* ikuski-zunarekin. “Familia osorako ekintza da.

Garai hartako gurasoen kanta hartu, eta moldatu dituzte umeekin batera dantza eta kanta ditzaten”. Zapatuko giroaz baliatuta, 20:00etan Euskaraldiko kale-ekintza egingo da Tximintx euskaldunen komunitatearen eskutik. “Euskaraldia 2020an izango da berriri, eta ekintza hau iazko edizioaren eta datorren artekoaren zubi moduan planteatu da Euskal Herri osoan. Arrantzaleek erabiltzen dutenen antzeko soka edo sarea ipiniko da. Iaz Euskaral-

SUITE DELUX
MARKA ESCLUSIBOAK ATSEDENERAKO

*“Carpe Diem”, bizitzaren momentu bakoitza gozatu,
atsedenetik hasita...*

... Zure ohea aldatuta, zure bizitza hobetuko dugu.

SUITE DELUX LEIOA - Iparragirre 80, Leioa - Tf. 944 316 516
SUITE DELUX DERIO - Derioko Seminarioa - Tf. 944 545 147

WWW.SUITDELUX.COM

Ezkabako ihesa oroitzuz



t/a: Jose Angel Mentxaka

Txorierritar talde batek, gotorlekuari itzulia eman ostean, ibilaldia hasi dugu, GR225 jarraituz. (GRak "Grandes Randonnées" dira, balizatutako ibilbide luzeak. Kasu honetan, 225 zenbakiak ihesaldiaren data adierazten du, 22an zelako eta bosgarren hilabetea). Ibilbidea oso ondo markatuta dago eta ez dago galtzerik. Beherantz hasi gara estrata zabal batetik. Gari-solo artean Garrues eta Orrio herrixketatik pasatu, basoan sartu eta Olaitzetik Olabe herriraino joan gara, gure lehen etapako helmugara. Hamalau kilometro inguru dira eta, eguraldiak lagun, erraz bete ditugu.

Iheslariak ez zuten suerte handirik izan. Kasualitatez Iruñetik zetorren guardia bat kartzelatik alde egin zutela konturatu zen, abisu eman zuen eta ehiza berehala hasi zen. Berrehun eta sei hil egin zituzten; harrapatutakoen artean 16 ihesaren antolatzailetzat hartu, eta abuztuaren fusilatutakoak zituzten. Hiruk besterik ez zuten lortu muga pasatzea.

Olabe herriaren ondoan lehen hilobia bisitatu dugu. Herrian ezkutatuta aurkitu zituzten, apur bat aldendu, eta bertan fu-

1938ko maiatzaren 22a zen, igande gaua. Iruñea ondoan dagoen Ezkabako San Cristobal kartzela-gotorlekutik 795 presok alde egitea lortu zuten (2.500 zeuden une hartan espetxean). Munduko ihesaldirik handienetarikoa izan zen. Gehienak preso politikoak ziren, gerra-presoa.

silatu zituzten. Orain dela ez urte asko, 16 gorpuzki aurkitu dituzte Aranzadi taldeak egindako indusketan; denak gazteak, 25 urtetik beherakoak. Oroigarri xume batek gogorarazten digu gertatutakoa. Hunkigarria egin zaigu unea. Herrian beste gorpu batzuk ere aurkitu dituzte; bata, lo egingo dugun hotelaren ondo-ondoan.


Iheslariak txarto elikatuta zeuden, ia oinutsik, gosez, eta gauez ibili behar zuten patruilak saihesteko. Eguraldiak ere ez ei zien lagundu, maiatza hura euritsua izan zen eta. Apurka-apurka, esan dugun moduan, ia denak berriro Ezkabara bidali edo hil egin zituzten. Azkena abuztuaren harrapatu zuten, hiru hilabete geroago.

Bigarren etapa hasi, eta bidezidor estu eta polit batetik, ezpelezko tunelak une batzuetan, mendian gora egin dugu; gero bidea zabaltu eta leundu da. Han eta hemen

behor ederrak lasai egon dira belarra jaten. Zirimiria apur bat jausten hasi da, basa apur bat egon da, baina eroso ibili gara leku eder hauetatik Leranotz herritik aurrera, berriro mendiko bidezidor estua, itzel ederra. Eta inguruko edertasunarekin kontrastea, beste oroigarri bat, iaz aurkitutako galego biren gorpuak gogoratzen dituen. "Non enterran cadáveres, enterran semente", Castelaoren aipua irakur daiteke bertan.

Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com



Saigotsen amaitu dugu gaurkoa. Beste 14 kilometro.

Ez dago ondo jakiterik nondik joan ziren iheslariak. Nafarroa iparraldeko landa eta basoetatik sakabanatu ziren taldeka edo bakarka. Bik, Jose Marinerok eta Valentín Lorenzok, Luzaide inguruan lortu zuten muga gurutzatzea. Neka-neka egin da eta euren burua entregatzeko zorian zeudenean, baserri batera heldu ziren eta bertakoek esan zieten muga 300 metrora zegoela, erreka ostean. Horrela lortu zuten ihes egitea.

Hirugarren etapa Saigotsen hasi dugu mendian gora. Une batean Santiagoko bi-dearekin bat egiten du, aurrerago berriro banatzeko. Landa zabal batzuk gurutzatu ostean pagadian sartu gara. Pagadi ederra

benetan, eta ez dugu hura utzi Sorogaineko mendi aterpera heldu arte. Hamabost kilometro izan dira gaur. Sorogain pagadi arteko larreek osatzen dute, zaldi ederrek, behiek, ardiek... eta mendi aterpea afaldu eta lo egiteko.

Sorogain inguruan ere hainbat iheslari harrapatu zituzten, baina batek, Leoneko Jovino Fernandezek, artzain baten laguntzaz Urepelera heltzea lortu zuen. Hamabi egun eman zituen ihesaldian, belarra eta haritzen hostoak janez. Esan beharra dago, egun batzuetan atsedena hartu ostean, hirurak Bartzelonara joan zirela, frontera, berriro borrokatzera. Gerra galduta, Frantziako kontzentrazio-esparruetatik pasatu ondoren erbestera joan ziren, eta bertan hil.

Gure GR225ak Jovinok egingo zuen ibilbideari jarraitzen dio gutxi gora-behera, zeren ez baitago zehatz-mehatz jakiterik. Laugarren eta azken etapak Sorogainetik Urepeleraingo eroan gaitu. Hasieran malda-gora pista zabal batetik izan arren, gehiena pagadi handi eta eder batetik behera da. Bide bazterreko pago batzuk ikusgarriak dira. Hamar kilometro inguru egin ostean heldu gara Urepelera, Jovino heldu zen moduan. Berau gogoratuz eta Xalbador bertsolariaren oroigarrian argazkiak ateraz eta "Xalbadorren heriotzean" abestuz amaitutzat eman dugu gomendagarria den ibilbidea. Bai bere edertasunagatik, bai gure memoria historikoaren parte garrantzitsua delako.



Ekonomia Ituna
zerikusi handia... nirekin!

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA

OSAILUN ETA EKONOMIA
SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA

Begiradaren berezitasuna

t: Itxaso Marina Ondarrosa

Margotzea adierazteko modua da Zubirerentzat. Izan ere, bere esanetan, koadroen bidez askoz hobeto adierazten du hizketan baino. "Ondo sentitzen naiz. Margotzen dudanean ez dago gehiagorik eta mundua da momentu horretan egiten nabilena. Mundu hori neurea da bakarrik, eta erakusketaren bidez partekatu egin dezaket". Horrela, margolanetan oso ikuspegi berezia islatzen du naturari, teknologiarik eta ametsei buruz. Batzuk kolore biziko lanak dira; beste batzuk kritika zorrotzez beterik daude; eta beste batzuk, egilearen barneko munduak kanporatzen dituen zuri-beltzeko surrealismoz.

Natura ezinbestekoa du sondikoztarrek, eta naturara jotzen duenean lasaitu egiten dela esan digu. "Bizirik sentitzen naiz eta indar hori koadroen bitartez adierazten saiatzen naiz, bai kolorea, bai mugimendua erabilita". Naturak mugimendua du eta uneoro aldatzen ari da; horregatik, bere ustez, paisaiak oparia dira. "Bidaia guztietan mugimenduari eta paisaiari begiratzen diet beti, eta bolumenak, formak... hartzen ditut. Koloreari ere erreparatzen diot. Udazkena asko gustatzen zait, baina udaberria zoragarria da: kolorez beterik dago".

Bestalde, mundu digitalak gero eta indar handiagoa du gizartean, eta Zubirik uste du horrela jarraituz gero gizakiok sentimenduak azaltzeko gaitasuna galdu genezakeela. "Nik edonori bidal diezaioket mugikorretik musu bat; aitzitik, ezin diot edonori musu bat eman. Hortaz, musuaren benetako sakontasuna eta sentimendua galtzen ari dira". Munstro itxurako pertsonak protagonista dira bere koadro batzuetan, zeren eta kezkatuta baitabil teknologiak gudan sortuko due-

Azaroan, Itsasne Zubiri sondikoztarrek azken urte bi eta erdian egindako 46 margolan ipini ditu ikusgai Derioko Kultur Birikan. Erakusketan hiru gai jorratu ditu: natura, teknologia eta ametsak. Bere lan bitxiak ez ditu hotz utzi hara hurbildu direnak.

narekin. "Behin, gazte batek esan zidan berarentzat teknologia bizitzeko organoa zela; beste batzuentzat erlijioa da".

Teknologia berriei esker dena eskura izatea ere ez da lagungarria, bere iritziz. "Informazioa arin eta bideoen bidez, esaterako, jasotzen dugu, eta bideo horietan irudia eginda dator; ez dugu geuk egiten. Ondorioz, askoz gutxiago pentsatzen dugu eta askoz gehiago manipulatzeko gaituzte: nahiz eta helmugara lehenago ailegatzen garen, ez goaz geuk egindako bidetik. Horregatik pentsatzen dut irakurtzea ezinbestekoa dela irudimena lantzeko". Teknologia aldea ona eta alde txarra

ditu, eta margolanetan pertsonok gatibu bihurtzen gaituzten alderdiak kritikatzeko ditu. "Mundu guztia ikusten duzu pantailari begira; ez dakit ez ote dugun pentsatzeko gaitasuna ere galduko".

Margotzea oso zaletasun entretenigarritzat du, eta aitortu du pintatzen edo marrazten lasai asko zortzi ordu pasa ditzakeela. Ametsak irudikatzen dituzten lanak berez sortzen ditu, emaitza zein izango den jakin barik. "Margotzen hasten naiz eta, adibidez, musika etortzen zait burura. Orduan pentsatzen dut musikak nigan zer sortzen duen, nola sentitzen naizen... eta joaten naiz horretaz pintatzen. Koadro



*"Koadro bati begiratzen
dionunean barrutik
mugitu behar
zaitu, onerako zein
txarrerako"*

magikoak dira niretzat". Natura ez ezik gure gogo-aldarte ere aldakorra da, eta, logikoa denez, momentuko sentsazioek eragina dute Zubiriren lanean. "Koadro bati begiratzen diozunean barrutik mugitu behar zaitu, onerako zein txarrerako".

Bihotzean

Kultur Birikara eramandako margo-lanak azken urte bi eta erdian pintatu ditu, hiru izan ezik. "Horiek lehenago margotu nituen, Miamin bizi nintzenean; hala ere, hobetuko nituelakoan, zenbait ukitu eman dizkiet". Margolarak egiteko, olioak, errotuladore akrilikoak eta rotrinak erabiltzen ditu. "Gazte-gazterik hasi nintzen margotzen eta gero diseinu grafikoa ikasi nuen. Margolaritza eskola jaso dut txikitan zein gaztetan, eta nire kabuz ere ikasi dut; gaur egun edozer gauza ikas dezakezu zure kabuz". Pintore kutun asko ditu eta batzuk aukeratzea zaila den arren, hiru aipatu dizkigu: Escher, Kandinsky eta Munch.

Zubirik sustrai euskaldunak ditu eta euskalduna sentitzen da, baina bihotzean beste herrialde batzuk ere baditu: Vene-



zuela eta Argentina kasu. "Leku askoan bizi izan naiz eta azkenean toki bakoitzetik hartzen duzu zerbait. Argentinara itzultzeko gogoia dut, oso aberatsa da kultura arloan; orokorrean, eta salbuespenak salbu, Hego Amerika osoak du oso kultura bizitza aberatsa". Margolarak batez ere Venezuelan ipini ditu ikusgai, eta Deriokoa

Euskal Herrian egin duen bigarren erakusketa izan da. "Kultur Birika oso aproposa da erakusketarako: areto zabala eta argitasun handia ditu. Ikuspegiak ere oso politak dira". Datozen hilabeteotan Basaurira eta Barakaldora eramango ditu koadroak eta haiekin batera naturari, teknologiari eta ametsei begiratzeko bere modu berezia.

**GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

ZURE NEURRIRA



**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com



a: Zamudioko Udala

Halloween festa gurera etorri baino askoz lehenago, Euskal Herriko txoko askotan Gau Beltza edo Arimen Gauda ospatzen zen Santu guztien egunaren bezperan. Ohiturak XX. mendera arte iraun zuen, eta Sondikan eta Zamudion ahalegin berezia egiten dabilta usadio zaharrak berreskuratze edo berrinterpretatzeko. Gainera, Larrabetzun Akarbaltz Gauda ospatzen dute 2005etik hona, eta hura mitologiarekin, sorginekin eta lurrarekin lotzen dute.

Antzina, kalabazak eta arbiak hustu, begiko, sudurreko eta ahoko zuloak egin, eta haien barruan kandelak pizten ziren. Kalabazak-eta bide bazterretan uzten ziren hildakoen arimek bidea erakusteko. Era berean, gazteak eta umeak etxeko trupu zaharrekin mozorrotzen ziren auzokideak beldurtzeko. Familiek gaztainak jan ohi zituzten eta herri batzuetan umeak eskean ibiltzen ziren. Elkarrekin eta erakundeek Txorierriko kaleetara ekarri dituzte berriro ohitura horiek.



a: Idoia Andres



a: Nexis / Ibai Legarreta



a: Nexis / Ibai Legarreta



a: Idoia Andres



a: Idoia Andres



a: Nexis / Ibañ Legarreta



Kaixo, Siri! OK, Google! Agur, Ben Hur!

t: Xabier Diaz / a: tecnonucleous.com

Inoiz egin dut, bale... Entzungailuak ipinita eta telefonoa eskuetan "Okei Google" esan dut ahopean; gero, ozenago..., eta askoz ere ozenago... Eta telefonoak erantzun egin dit. Jarraian, helbide bat esan dut eta Google Maps-en agertzen den ibilbideari jarraitu diot, niri so egon den jendeari saiheska begirata, lotsaren lotsaz. Geroz eta gauza gehiago egiteko gai dira adimen artifizial hauek; Appleen Siri, Amazonen Alexa, Microsoften Cortana, Movistarren Aura, Linuxen dabilen Mycroft edo besteren bat izan.

Ez da bakarrik eguraldiari buruz galdetu, musika bat edo beste bat aukeratu, agendan hitzordu bat gehitu edo izena esanda bakarrik dei bat egin: inoiz aipatu

dugun Internet Of Things (IoT) honetan, sarera konektatuta dagoen ia edozein traste edo aplikazio kontrola liteke adimen artifizial haiekin; esaterako, bonbilla adimendunen kolorea eta argitasuna ezarri, barazkiak Internetez erosi edo sukaldeko robotean ahozko aginduen bidez janaria prestatu. Gainera, tabletetan eta sakelako telefonoetan laguntzaile adimendu gisa hasi baziren ere, orain bozgorailu adimentsuetan daudenak ipini dira modan; Estatu Batuetan, adibidez, salmentak % 78ko gorakada izan zuen iaz. Eskaintzen dituzten aukerak gero eta zabalagoak dira: pertsonak igo eta jaitsi, eguraldia iragarri eta tokiko albisteak ematen dituen iratzargailua, berogailua zein aire egokitua doitu, erosketa-zerrendak ahoz egin eta Internet bidez eskatu, "bizum" bat egin, podcastak

entzun, garajeko atea itxi edo zabaltu, osasun-aholkuak eman, bizikletaz egiteko ibilbideak iradoki...

Baina horiek zabaltu ahala kezka batzuk ere agertu dira. Ezagutuko dituzue ordenagailu eramangarrien kamerak esaltzeko plastikotxo itsasgarriak, ezta? Horrelakorik ote dago bozgorailuetarako zein beste trasteen mikrofonoetarako? Izan ere, Googlek, Facebookek, Amazonek eta Applek onartu dute euren erabiltzaileen audioak erabiltzen dituztela. Ustez, transkripzioak hizkuntzak eta beren erabilera hobeto ulertzeko baino ez dituzte baliatzen, baina hain azalpen "garbiak" badira, zergatik eman dituzte salaketak izan eta gero?

Neurriak; ez partxeak

Eta ez hori bakarrik: Berkeleyko Kaliforniako Unibertsitateko eta Georgetown Unibertsitateko ikasle batzuk 2016an gai izan ziren Siriri, Alexari eta Google Assistanteri audio eta YouTube bideo batzuetan agindu entzunezin batzuk bialtzeko, eta ikertzaile batzuek laserra erabilia gauza bera lortu dute.

Horrelako hackerrei eta eskrupulurik gabeko enpresei aurre egiteko, hainbatek "Privacy by Design" edo "Pribatutasuna Diseinutik" bultzatzen dute eta Europako Datuen Babeserako Araudi Orokorrek ere horrela jasotzen du; hau da, neurriak hardwarearen zein softwarearen diseinuaren lehenengo urratetik hartu behar dira, eta ez amaituta daudenean partxeak gehitu. Hortaz, ordenagailu eramangarriek eurek kamerarako estalkia eduki beharko luke, eta bozgorailuek, itzaltzeko etengailuak, plastikotxoak itsatsi edo atzamarra mikrofonoan jarri beharrean.

Dena den, ez pentsatu horrelakorik ez hartzea gomendatzen nabilenik: ni neu ere bonbilla eta xurgatzaile horiekin "jola" irrikan nago. Kontua da zertarako erosten ditugun, arriskuak zeintzuk diren eta horiek zelaz kudeatzen ditugun.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unbe 7, beheko
48160 DERIO (Bikaina)

-Especialitate guztiak
zentro bakar baten
-Aurrikortasun osoa
-Especialitateak
umeak

A, E, I, O, U

Austria Est Imperare Orbi Universo

t: Juan Luis Goikoetxea

Arlo batzuetan errealitate birtualak gainezka egin digu, eta lehen paperean irakurtzen genuena orain mugikorrean aurkitzen dugu. Baina, zoritxarrez, Twitterrekin, Facebookekin edo Instagramekin azaleko surfa praktikatzen da, sakona ukitu barik. Bestela, zelan ulertu gai batzuetan ez aurreratzea?

Familia euskalduneko haurrek ere Zamúdio esaten dute edo Dério. Euren amama-aititek Zamudixo eta Derixo esaten zuten. Eskolako liburuan, oster, silabaka banatuz gero, hola da: ZA-MU-DI-O eta DE-RI-O. Zergatik? Hara: Euskaraz bost fonema bokaliko ditugu: / a,e,i,o,u /. Zubereraz bada seigarren bokal bat ere ü idazten dena ortografikoki. Badakigu fonema bokaliko eta kontsonantikoen konbinaketaz silabak sortzen direna.

Artikuluko izenburua A,E,I,O,U denez, esan dezagun zer diren diptongoak eta hiatusak. Beheranzko diptongoak: ai, ei, oi, au, eu dira. Esate baterako: bai, sei, goi, hau, euskal. Hau da, hots ireki batetik -a, e. o- hots itxi batera -i, u- iga-

rotzen gara. Silaba bat osatzen dute. Beraz: LOI-U silaba bikoa da.

Goranzko diptongoak dira: ia, ie, io, ua, ue; hau da, hots itxi batetik -i, u- ireki batera -a, e, o- pasatzerakoan gertatzen direnak. Goranzko diptongoa denean, hiatusa egitea komeni da, diptongoak apurtzea. Beraz:

ZA-MU-DI-O (4 silaba) esan behar da; ZA-MU-DIO (3) esaten baduzu IO-goranzko diptongoa apurtu barik, erdal usaineko berbeta darabilzu. DE-RIO esaten baduzu, goranzko diptongoko IO baturik, erdal usaineko hizkera darabilzu, ze, DE-RI-O (3) esan behar da, goranzko diptongoa apurtu eta hiatusa eginik.

Halandaze, amama-aititek Zamudixo edo Derixo zergatik esaten zuten erraz ulertzen da, hots, goranzko diptongoa egin barik, bokal biren artean soinu kontsonantikoa sartuz.

A, E, I, O, U, azalekotik sakonera jotzen badugu, geure inguruko euskal jakituria ikasiko dugu, baita mundukoa ere, adibidez, historian ospetsua den A, E, I, O, U: A-Austria E-est I-imperare O-orbi U-universo: Austria da mundu osoa gobernatzea, haxe zen-eta Federiko III.aren goiburua.

DE-RI-O.
ZA-MU-DI-O. LOI-U



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



**PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU**

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

**TURREGOITI
JATETXEA**

Laurota etorbidea, 27
48160 Lolu-Bizkaila
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoitit.com



elekma

URRATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEFONIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSAK

lehenengo markak • Frigorik, onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txokorri etorbidea, 25-3 N • 48160 Lolu
T. 944 539 232
www.elekma.es



**sarraila-denda
Txorierri**

ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNIAN

946 038 663
625 100 800
info@ceirajerriatxorierri.com
www.ceirajerriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urkiola, 4 lonja
48160 Deno

Etxeko sukaldaritza

Mertxika-flana

t: Maite Lekerika

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 400 ml esne-gain
- 400 gramoko esne kondentsatu-lata bat
- 800 gramoko mertxika-lata bat
- 6 arrautza
- Karamelua

Prestetako erea:

Osagai guztiak irabiatuko doguz, mertxika almibarretan be bai. Molde baten karamelua ipiniko dogu, eta haren gainean, nahasia. Labara sartuko dogu 180 gradutan eta han 45 minutuan izango dogu maria bainuan. Gustukoa bada, mahaira ateratzeko orduan mertxika-zerrenda batzukaz apaindu daikegu.



a: colesterolesinfronteras.blogspot.com

Arrautzak beneditar erara

Osagaiak:

- 2 ogi-xerra
- 2 urdaiazpiko erre-xerra
- 2 arrautza
- Gatza
- Piperbaltza

Saltsa holandarra egiteko:

Arrautza-gorringoa, koilarakada bat limoi-ur, koilarakada erdi ur hotz, gatza apur bat eta 75 g gurin.

Prestetako erea:

Lehenengo eta behin, ogia txigortuko dogu; ondoren, arrautzak ur irakinetan egingo doguz. Saltsea egiteko, ontzi baten arrautza-gorringoa, limoia, ura eta gatza ipiniko doguz eta dana irabiatuko dogu. Ontzia su motelean jarri, eta gurin-zati txiki bat gehituko dogu. Urtzen hasten danean, eragingo deusagu eta gainerako gurina gehituko dogu. Eragiten jarraituko dogu, harik eta ore krematsua lortu arte. Saltsea ontzi epel batera botako dogu, gurina ez gogortzeko. Saltsa apur bat ipiniko dogu ogi gainean, urdaiazpiko-xerra bat eta arrautza. Gatza eta piperbaltza botako doguz; eta azkenik, saltsea.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami suzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cule, 517
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

ERREKA LONDO ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnua: 94 452 14 19
Faxia: 94 452 26 29

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

GAMINIZ JATETXEA


Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.pasatiemposinfantiles.es



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–*Antzara Eguna* (Txalaparta), Har-
kaitz Cano eta Adur Larrea.
–*Natura labur mintzo* (Alberdania),
Pello Zabala.
–*Itsu kolpeka* (Alberdania), Alfontso
Gartziandia.
–*Aitaren etxea* (Elkar), Karmele Jaio.
–*Lisboako setioaren historia* (Elkar).
José Saramago. Itzultzailea: Jon
Alonso Fourcade.

LITERATURA: GAZTEAK

–*Etxe honetan* (Pamiela), Aintzane
Usandizaga eta Gaston (il.). Album
Ilustratuen XIII. Etxepare Saria 2019.
–*Inoren munduan* (Elkar), Asel Luza-
rraga.
–*Joemak eta polasak* (Elkar), Maite
Mutuberria eta Iñigo Astiz.
–*Ane eta Moon Zabor uhartean*
(Erein), Noelia Lorenzo.
–*Basajaun* (Denonartean-Cenlit),
Bakarne Atxukarro eta Asun Egurza.

Sudokua

	3					8		1
							4	3
						9	2	
				3		4		8
	2		6	9			1	
		4	1				9	
	4		8			1	6	
8					2			9
5	9			6	1			

4	8	2	1	9	3	7	6	5
6	3	5	2	4	1	7	9	8
7	9	1	6	5	8	3	4	2
2	6	9	8	7	1	4	5	3
5	1	3	4	6	9	8	2	7
8	7	4	5	3	2	6	1	9
9	2	6	3	8	4	5	7	1
3	4	7	1	9	5	2	8	6
1	5	8	7	2	9	6	3	4



Azokak

Sondika

- > Nekazamudio. Abenduaren 7an, 11:00etan, Kultura Etxean.

Sondika

- > "Munduko talderik onena. Athletic Klubaren istorioak", Tomas Ondarraren eta Carlos Raneroren eskutik; BBK-k utzitakoa. Azaroaren 28ra arte, liburutegian.

Erakusketak

Derio

- > Argazki-lehiaketaren argazkirik onenak. Urtarrilaren 13ra arte, Kultur Birikan.
- > Hegazkinen erakustaldia. Abenduaren 22an, 11:00etan, frontoian. SUBYKE taldeak antolatua.

Larrabetzu

- > Gabonetako postalak, Anguleri kultur etxean. Abenduaren 10etatik aurrera.

Hitzaldiak

Derio

- > "Hezkidetzat; sexuen berdintasunean zelan hezi", Juan Carlos Alonso psikologoa- ren eskutik. Abenduaren 3an, 18:30ean, Kultur Birikan.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: *Hezuraren erretura*, Miren Agur Meaberen eskutik. Abenduaren 19an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Zamudio

- > Udal ikastaroetan izena emateko azken eguna: abenduaren 13a.
- > "Gabonetako eskulanak" tailerra. Abenduaren 14an, 11:30ean, liburutegian.

Larrabetzu

- > Margogintza eta patchwork ikastaroetan izena edo baja emateko epea: abenduaren 9tik 13ra, Anguleri kultur etxean.

Lezama

- > Clyclore Fitness, 13 urtetik 16 urtera bitarteko gazteentzat. Zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara, gimnasioan. Informazio gehiago: zorribike@zorribike.com.

Ikuskizunak

Lezama

- > *Maria, isiltasunaren elokuentzia* antzez- lana, Ausartak emakumeen antzerki taldearen eskutik. Abenduaren 1ean, 19:00etan, kultura aretoan.

Irteerak

Sondika

- > Bidasoa bide berdea. Abenduaren 15ean, 07:30ean, Nagusien Etxean. Untza mendi taldeak antolatua.

Zamudio

- > Durangoko Azoka. Abenduaren 6an, 09:30ean, Txorierriko etorbideko gela- lekuan. Izena ematea: abenduaren 5era arte. Prezioa: euro bat.

Lezama

- > Golako Erreka. Abenduaren 15ean, 09:30ean, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.

Kontzertuak

Larrabetzu

- > Gaztelumendi abesbatzaren Gabone- tako kontzertua. Abenduaren 16an, 20:00etan, Andra Mari elizan.
- > Musika eskolaren kontzertua. Abendu- aren 19an, 19:30ean, Andra Mari elizan.

Sondika

- > Santa Zezilia. Azaroaren 24an, 19:00etan, San Joan Bautista elizan. Kalejira, 18:30ean Jubilatuen Etxetik. Ipar Elaiak txistu taldea, Gorantzaileak dan- tza taldea, eskolako abesbatza, Txuma Olague abesbatza, Olague talde korala eta Pentagrama akordeoi elkarteak.

Loiu

- > Bizkaiko Hotsak. Diego Amezuza XIV. Organo Jaialdia. Azaroaren 30ean, 12:30ean, San Pedro elizan. Pablo Marquez eta Atsuko Takano organistek batera joko dute.

Derio

- > Santa Zezilia, Ipar Alde abesbatzaren eskutik. Azaroaren 23an, 19:00etan, San Isidro elizan.

Bestelakoak

Derio

- > Derio olgetan. Azaroaren 23an eta 24an, 17:00etatik 20:00etara, frontoian.
- > Derio olgetan. Abenduaren 14an eta 15ean, 17:00etatik 20:00etara, frontoian.

Lezama


- > Belbur Barik lehiaketaren sariak bana- tzea. Azaroaren 23an, 19:00etan, Kultur Aretan.

Zamudio

- > Lagunandre elkartearen urte amaiera- ko bazkaria. Abenduaren 14an.
- > Adintsuen Taldearen urte amaierako bazkaria. Abenduaren 22an.

Larrabetzu

- > Beldur Barik lehiaketaren sariak bana- tzea. Azaroaren 22an.
- > Irakurketa saioak, Saroarekin. Aben- duaren 13an, 16:30ean, Anguleri kultur etxean.
- > Gabonetako postalen lehiaketaren sariak banatzea. Abenduaren 21ean, 18:00etan, eskolako jantokian.



RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel.: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA
Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

ZAMUDIO
Loteria Nazionala
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

TREBETASUNA ETA PROFESIONALITASUNA

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 GURE —
BASERRITARREKIN



EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

SONDIKA:
CARNICERÍA AITOR MADARIAGA
Zarate, 2 B

BERTAKO PRODUKTUEN MERKATUA

07-12-2019

NEKA ZAMUDIO

KULTURA ETXEKO PATIOAN



TALO ETA TXORIZOA

**UMEENTZAKO TALO TAILERRA
TXOZNAN TXAKOLINA TALO ETA TXORIZOAGAZ**

Antolatzailea



Laguntzailea

ZAMUDIOKO
LUR LANGILEEN
ETXEA

Laguntzailea

